

AURKIBIDEA

UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOA

XEDEA

ATARIKO TITULUA. GASTEIZKO UDALEKO HIZKUNTZA OFIZIALAK

1. artikulua.- Gasteizko Udaleko hizkuntza ofizialak.

I. TITULUA. GASTEIZKO UDALA ERATZEA

2. artikulua.- Gasteizko Udala eratzea.

II. TITULUA. GASTEIZKO UDALBATZA

1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK

3. artikulua.- Osaera.

4. artikulua.- Eskumenak.

2. KAPITULUA. UDALBATZAKO LEHENDAKARIA

5. artikulua.- Zereginak.

6. artikulua.- Besteren gain uztea.

7. artikulua.- Ordezkatzea.

3. KAPITULUA. BILKUREN ERREGIMENA

8. artikulua.- Bilkura motak.

9. artikulua.- Ohiko bilkurak.

10. artikulua.- Aparteko bilkurak.

11. artikulua.- Herritarrek parte hartzearen baitako gaiak.

4. KAPITULUA. UDALBATZAREN BILKURETARAKO DEIALDIA

12. artikulua.- Ohiko bilkuretarako deialdia.

13. artikulua.- Aparteko bilkuretarako deialdia.

14. artikulua.- Eledunen Batzarraren jarduna.

15. artikulua.- Deialdiaren berri ematea.

5. KAPITULUA. ASISTENTZIA-QUORUMA

16. artikulua.- Lehenengo deialdian eratzea.

17. artikulua.- Bigarren deialdian eratzea.

18. artikulua.- Deialdia legearen aginduz egitea.

19. artikulua.- Asistentzia-quorumari eustea.

6. KAPITULUA. UDALBATZAREN BILKUREN GAI-ZERRENDA

Lehen atala. Egitura.

20. artikulua Udalbatzaren ohiko bilkurak

21. artikulua.- Udalbatzaren aparteko bilkurak

22. artikulua.- Udalbatzaren aparteko kontrol bilkurak.

23. artikulua.- Udalbatzaren aparteko eta premiazko bilkurak

Bigarren atala. Agiriak aurkeztea eta epeak kontatzea.

24. artikulua.- Arau orokorrak.
25. artikulua.- Bideratutako ekintzak berresteko proposamenak.
26. artikulua.- Agerraldia egiteko erabakia hartzeko eskabideak.
27. artikulua.- Udalbatzaren aurrera agertzeko eskabideak.
28. artikulua.- Udal gobernuaren ebazpenak eta komunikazioak.
29. artikulua.- Mozioak
30. artikulua.- Interpelazioak.
31. artikulua.- Eskeak.
32. artikulua.- Galdeak.
33. artikulua.- Beste.

Hirugarren atala. Udalbatzaren gai-zerrendan sartutako dosierren kontsulta.

34. artikulua.- Dosierrak kontsultatzea.

Laugarren atala. Udalbatzaren bilkuretarako deialdien publikotasuna.

35. artikulua.- Deialdien publikotasuna.

Bosgarren atala. Herritarren txanda.

36. artikulua Herritarren txanda osoko bilkuretan.

7. KAPITULUA. UDALBATZAK IZAERA BETEARAZLEKO ERABAKIAK HARTZEKO PROPOSAMEN MOTAK

37. artikulua.- Udalbatzaren batzordeek irizpenetan egindako proposizioak.
38. artikulua.- Gobernu Batzarrak onetsi eta Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proiektuak.
39. artikulua.- Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proposamenak.
40. artikulua.- Premia arrazoiak direla-eta bestelako organoek erabakitako ekintzabideratzeak berrestea.
41. artikulua.- Premiazko mozioak.

8. KAPITULUA. EZTABAIDAK ZUZENTZEA

42. artikulua.- Lehendakariaren zereginak.
43. artikulua.- Eztabaidaren antolakuntza orokorra.
44. artikulua.- Gaiak mahai gainean uztea. Zerrendatik kentzea.
45. artikulua.- Mintzatzeko txandak.

9. KAPITULUA. BOZKETAK

Lehen atala. Botoaren izaera eta esanahia.

46. artikulua.- Botoaren izaera.
47. artikulua.- Botoaren esanahia

Bigarren atala. Bozketa motak.

48. artikulua.- Bozketa motak.
49. artikulua.- Ohiko bozketak.
50. artikulua.- Izenaren arabeko bozketak.

51. artikulua.- Isilpeko bozketak.

Hirugarren atala. Bozkatzeko modua.

52. artikulua.- Modu normala.

53. artikulua.- Izenaren arabeko bozketa noiz egingo den.

54. artikulua.- Isilpeko bozketa noiz egingo den.

Laugarren atala. Bozkatuko den testua finkatzea.

55. artikulua.- Bozkatuko den testua finkatzea.

56. artikulua.- Zatikako bozketa, izaera betearazlea duten erabakiak hartzeko.

57. artikulua.- Zatikako bozketa, kontrol jarduerako erabakiak hartzeko.

Bosgarren atala. Bozketaren nondik norakoak eta gehiengoak.

58. artikulua.- Bozketaren nondik norakoak.

59. artikulua.- Gehiengo soila.

60. artikulua.- Gehiengo absolutua.

61. artikulua.- Legez abstentziotzat jo beharrekoak.

10. KAPITULUA. DIZIPLINA

62. artikulua.- Hitz egitea.

63. artikulua.- Ordena kontuak.

64. artikulua.- Zeharkako aipamenengatik mintzatzea.

65. artikulua.- Kontu hartzea.

66. artikulua.- Portaera arauak.

11. KAPITULUA. UDALBATZAREN BILKUREN AKTAK

67. artikulua.- Aktak egitea.

67 bis artikulua. Bilkuren emankizuna eta grabazioen hedapena

68. artikulua.- Onestea.

69. artikulua.- Akten liburua.

III. TITULUA.- ZINEGOTZIAREN ESTATUTUA

1. KAPITULUA. ARAUTZEA

70. artikulua.- Arautzea.

2. KAPITULUA. ZINEGOTZIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

71. artikulua.- Eskubideak eta betebeharrak

3. KAPITULUA. BILKURETARA JOATEKO ESKUBIDEA ETA JOAN BEHARRA

72. artikulua.- Joateko eskubidea eta joan beharra.

4. KAPITULUA. INFORMAZIOA IZATEKO ESKUBIDEA

73. artikulua.- Tramitatzen ari diren dosierrak irispidean edukitzeko eskubidea.

73 bis artikulua.- Informazioa eta dokumentazioa eskatzea.

74. artikulua.- Datu estatistikoak irispidean edukitzeko eskubidea.

75. artikulua.- Jurisdikzio organoetako egintzak bidaltzea.

- 76. artikulua.- Informazioa isilpean gorde beharra.
- 77. artikulua.- Aldian behingo informazioa.
- 78. artikulua.- Txosten teknikoak.

5. KAPITULUA. ORDAINSARIAK

- 79. artikulua.- Gutxienerako ordainsariak.
- 80. artikulua.- Asistentzia-dietak.
- 81. artikulua.- Ardura bereziei dagozkien ordainsariak.
- 82. artikulua.- Uko egitea.

6. KAPITULUA. ABSTENTZIOA ETA ERREFUSATZEA

- 83. artikulua.- Abstentzioa.
- 84. artikulua.- Ekintzen baliorik eza.
- 85. artikulua.- Errefusatzea.

7. KAPITULUA. INTERESEN ERREGISTROAK

Lehen atala. Deklarazioak.

- 86. artikulua.- Bateriaezintasun-arrazoien gaineko deklarazioa egin beharra.
- 87. artikulua.- Ondasun eta kargen gaineko deklarazioa egin beharra.
- 88. artikulua.- Ereduak.
- 89. artikulua.- Interesen erregistroen arduraduna.
- 90. artikulua. Erregistro bereziak.

Bigarren atala. Erregistroak irispidean edukitzea.

- 91. artikulua.- Jardueren Erregistroa irispidean edukitzea.
- 92. artikulua.- Ondare-ondasunen Erregistroa irispidean edukitzea.
- 93. artikulua.- Iripidean jartzeko eskabideak.
- 94. artikulua.- Iripidean jartzeko eskabideak ebatzea.
- 95. artikulua.- Iripidea edukitzeko moduak.

8. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA

- 96. artikulua.- Erantzukizun zibila eta penala.
- 97. artikulua.- Udalbatzaren erabakiengatiko erantzukizuna.
- 98. artikulua.- Erantzukizuna eskatzea.
- 99. artikulua.- Erantzukizuna aseguratzea.
- 100. artikulua.- Zinegotzi izaera baliatzea.
- 101. artikulua.- Defentsa judiziala.

9. KAPITULUA. UDAL TALDEAK

Lehen atala. Eratzea.

- 102. artikulua.- Udal taldeak eratzea.
- 103. artikulua.- Udal taldeak eratzeko modua.
- 104. artikulua.- Udal taldea uztea.

Bigarren atala. Baliabide materialak eta pertsonalak.

- 105. artikulua.- Borondatezko izatea

- 106. artikulua.- Udal taldeei diru-kopuruak esleitzea.
- 107. artikulua.- Kontabilitatea.
- 108. artikulua.- Zorrak direla-eta erantzun beharra.
- 109. artikulua.- Udal taldeen bulegoak.
- 110. artikulua.- Langileak.

10. KAPITULUA. TALDE BATI ATXIKI GABEKO ZINEGOTZIAK

- 111. artikulua.- Talde bati atxiki gabeko Zinegotziak.

IV. TITULUA. UDALBATZAKO ELEDUNEN BATZARRA

1. KAPITULUA. IZAERA, OSAERA ETA ZEREGINAK

- 112. artikulua.- Izaera.
- 113. artikulua.- Osaera.
- 114. artikulua.- Zereginak.
- 115. artikulua.- Lehendakaria eta Idazkaria.

2. KAPITULUA. BILKUREN ERREGIMENA

- 116. artikulua.- Deialdia egiteko ekimena.
- 117. artikulua.- Maiztasuna.
- 118. artikulua.- Deialdia.
- 119. artikulua.- Asistentzia-quoruma.
- 120. artikulua.- Gehiengoak.
- 121. artikulua.- Lehendakariaren zereginak.

V. TITULUA. UDALBATZAREN BATZORDEAK

1. KAPITULUA. BATZORDE IRAUNKORRAK.

Lehen atala. Eratzea eta zereginak.

- 122. artikulua.- Batzorde iraunkorrak.
- 122 bis artikulua.- Langileekin lotutako gaiei buruzko batzordearen aurreko lan taldea.
- 123. artikulua.- Eskumenen banaketa.

Bigarren atala. Bilkuren erregimena.

- 124. artikulua.- Udalbatzaren batzordeen izaera publikoa.
- 125. artikulua.- Egitura.

Hirugarren atala. Osaera.

- 126. artikulua.- Organoko kideak.
- 127. artikulua.- Lehendakariaren zereginak.
- 128. artikulua.- Zinegotziak batzordeetara atxikitzea.

Laugarren atala. Bilkuren erregimena eta deialdia.

- 129. artikulua.- Bilkura motak.
- 130. artikulua.- Ohiko bilkurak.
- 131. artikulua.- Aparteko bilkurak.
- 132. artikulua.- Asistentzia-quoruma.

Bosgarren atala. Bilkuren gai-zerrendak.

Lehen zatia. Egitura.

- 133. artikulua.- Ohiko bilkurak.
- 134. artikulua.- Aparteko bilkurak.
- 135. artikulua.- Aparteko kontrol bilkurak.
- 136. artikulua.- Aparteko eta premiazko kontrol bilkurak

Bigarren zatia. Agiriak aurkeztea eta epeak kontatzea.

- 137. artikulua.- Arau orokorrak.
- 138. artikulua.- Eztabaidatzeko gaiak.
- 139. artikulua.- Udal gobernuko organoren baten agerraldia eskatzea.
- 139 bis artikulua.- Udalarekin lotutako enpresa, sozietate, erakunde eta elkarten agerraldiak eskatzea.
- 140. artikulua.- Eskeak.
- 141. artikulua.- Galdeak.
- 142. artikulua.- Dosierrak.

Bosgarren bis atala. Herritarren txanda Udalbatzaren batzordeetan

143. artikulua.- Herritarren txanda.

Bosgarren Ter atala: Vitoria-Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluaren agerraldia

143 bis artikulua. Herritarren partaidetzarako udal organoak eta Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseilua batzordeetara agertzea

Seigarren atala. Bozketak.

Lehen zatia. Bozkatuko den testua finkatzea.

- 144. artikulua.- Bozkatuko den testua finkatzea, izaera betearazlea duten gaietan.
- 145. artikulua.- Bozkatuko den testua finkatzea, kontrol jardueraren baitako gaietan.

Bigarren zatia. Bozketaren nondik norakoak.

146. artikulua.- Bozketaren nondik norakoak.

Hirugarren zatia. Gehiengoak.

- 147. artikulua.- Gehiengoak
- 148. artikulua.- Legez abstentziotzat jo beharrekoak.

Zazpigarren atala. Bilkuren aktak.

- 149. artikulua.- Aktak egitea.
- 149 bis artikulua. Bilkuren emankizuna eta grabazioen hedapena
- 150. artikulua.- Onestea.

Zortzigarren atala. Gai jakinak aztertzeke taldeak.

151. artikulua.- Gai jakinak aztertzeke taldeak.

2. KAPITULUA. BATZORDE BEREZIAK

152. artikulua.- Batzorde bereziak.

Lehen atala. Kontuen Batzorde Berezia.

153. artikulua.- Kontuen Batzorde Berezia.

Bigarren atala. Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia.

154. artikulua.- Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia.

Hirugarren atala. Bestelako batzorde bereziak.

155. artikulua.- Bestelako batzorde bereziak.

156. artikulua.- Ikerketa batzordeak.

3. KAPITULUA. UDALBATZAREN ESKUMENAK BATZORDEEN ESKU UZTEA

157. artikulua.- Eskumenak eskuordetzan ematea.

VI. TITULUA.- UDAL AURREKONTUAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

158. artikulua.- Tramitatzen hastea.

159. artikulua.- Egutegia.

160. artikulua.- Agerraldiak.

161. artikulua.- Ekarpenak eta zuzenketak.

161 bis artikulua.- Aurrekontu proiektuaren zuzenketak.

162. artikulua.- Irizpena.

163. artikulua.- Alegazioak.

164. artikulua.- Aurrekontu aldaketak sartzea.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

165. artikulua.- Hasierako onespena.

166. artikulua.- Alegazioak ebaztea.

167. artikulua.- Behin betiko onespena.

VII. TITULUA.- ARAUDIAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOA EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

168. artikulua.- Tramitatzen hastea.

169. artikulua.- Egutegia.

170. artikulua.- Txostenak.

171. artikulua.- Zuzenketak.

172. artikulua.- Irizpena.

173. artikulua.- Erreklamazioak.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea

174. artikulua.- Hasierako onespena.

175. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea.

176. artikulua.- Behin betiko onespena.

2. KAPITULUA. BESTELAKO ARAUDI ORGANIKOAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

Lehen atala. Batzordean tramitatzea

- 177. artikulua.- Tramitatzen hastea.
- 178. artikulua.- Egutegia.
- 179. artikulua.- Txostenak.
- 180. artikulua.- Ekarpenak eta zuzenketak.
- 181. artikulua.- Irizpena.
- 182. artikulua.- Alegazioak.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

- 183. artikulua.- Hasierako onespena.
- 184. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea
- 185. artikulua.- Proposizioa erretiratzea.
- 186. artikulua.- Behin betiko onespena

VIII. TITULUA.- ZERGAK ETA PREZIO PUBLIKOEN KOBRANTZA ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZAK NAHIZ KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO ORDENANTZAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

- 187. artikulua.- Tramitatzen hastea.
- 188. artikulua.- Egutegia.
- 189. artikulua.- Txostenak.
- 190. artikulua.- Zuzenketak.
- 191. artikulua.- Irizpena
- 192. artikulua.- Erreklamazioak.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

- 193. artikulua.- Behin-behineko onespena.
- 194. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea.
- 195. artikulua.- Proposizioa erretiratzea.
- 196. artikulua.- Behin betiko onespena

IX. TITULUA.- BESTELAKO ORDENANTZA ETA ARAUDIAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

- 197. artikulua.- Tramitatzen hastea.
- 198. artikulua.- Egutegia.
- 199. artikulua.- Txostenak
- 200. artikulua.- Zuzenketak.
- 201. artikulua.- Irizpena.
- 202. artikulua.- Erreklamazioak.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

- 203. artikulua.- Hasierako onespena.

- 204. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea
- 205. artikulua.- Proposizioa erretiratzea.
- 206. artikulua.- Behin betiko onespina.

X. TITULUA. HIRIGINTZAREN ALORREKO LEGEDIAN AURREIKUSITAKO ANTOLAKUNTZA PLAN ETA INSTRUMENTUAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. PLANEAMENDU OROKORRA

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

- 207. artikulua.- Tramitatzen hastea.
- 208. artikulua.- Egutegia.
- 209. artikulua.- Ekarpinak eta zuzenketak
- 210. artikulua.- Irizpena.
- 211. artikulua.- Alegazioak.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

- 212. artikulua.- Hasierako onespina
- 213. artikulua. Alegazioak ebaztea eta behin-behineko onespina
- 214. artikulua.- Behin betiko onespina.

2. KAPITULUA. BESTELAKO ANTOLAKUNTZA PLAN ETA INSTRUMENTUAK

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

- 215. artikulua.- Tramitatzen hastea.
- 216. artikulua.- Egutegia.
- 217. artikulua.- Irizpena.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

- 218. artikulua.- Behin betiko onespina.

X. BIS TITULUA. KONTU OROKORRA ONESTEKO PROZEDURA

XI. TITULUA. BATZORDE TXOSTENGILEAK

- 219. artikulua.- Eratzea.
- 220. artikulua.- Osaera.
- 221. artikulua.- Funtzionamendua.

XII. TITULUA. UDALBATZAK IZAERA BETEARAZLEA DUTEN ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. EKIMENA

- 222. artikulua.- Ekimena eta moduak.

2. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

- 223. artikulua.- Prozedura abiaraztea.
- 224. artikulua.- Zerrendatik kanpoko gaiak.
- 225. artikulua.- Mintzatzeko txandak eta irizpena.

225 bis artikulua.- Zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

3. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

226. artikulua.- Eztabaidatu beharreko gaiak.

227. artikulua.- Mintzaldien ordena

228. artikulua.- Bozketak.

XIII. TITULUA. GOBERNUA KONTROLATZEKO TRESNAK

1. KAPITULUA. BATZORDEAN

228 bis artikulua.- Kontrol ekimenen mugak, Udalbatzaren batzordeetan.

Lehen atala. Gaitzespenak.

229. artikulua.- Kontzeptua eta betebeharrak.

230. artikulua.- Tramitazioa.

Bigarren atala. Gobernu organoen agerraldiak.

231. artikulua.- Kontzeptua.

232. artikulua.- Betebeharrak.

232 bis artikulua.- Agerraldiaren nondik norakoak.

233. artikulua.- Premiazko agerraldiak.

Hirugarren atala. Galdeak.

234. artikulua.- Betebeharrak.

235. artikulua.- Ahoz erantzuteko galdeak.

236. artikulua.- Idatziz erantzuteko galdeak.

Lauugarren atala. Eskeak.

237. artikulua.- Kontzeptua.

238. artikulua.- Betebeharrak.

239. artikulua.- Tramitazioa.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN

240. artikulua.- Udalbatzako kontrol ekimenen mugak.

Lehen atala. Gaitzespina

241. artikulua.- Kontzeptua.

242. artikulua.- Betebeharrak.

243. artikulua.- Tramitazioa.

Bigarren atala. Gobernu organoen agerraldiak

Lehen zatia. Zinegotzien agerraldiak

244. artikulua.- Kontzeptua.

245. artikulua.- Tramitazioa.

Bigarren zatia. Gobernu Batzarreko kideen agerraldia.

246. artikulua.- Onartzea.
247. artikulua.- Agerraldiaren nondik norakoak.
248. artikulua.- Agerraldian sortutako mozioak.

Hirugarren atala. Interpelazioak.

249. artikulua.- Betebeharrak.
250. artikulua.- Tramitazioa.
251. artikulua.- Interpelazioetan sortutako mozioak.

Lauugarren atala. Galdeak

252. artikulua.- Betebeharrak
253. artikulua.- Ahoz erantzuteko galdeak.
254. artikulua.- Idatziz erantzuteko galdeak.

Bosgarren atala. Eskeak

255. artikulua.- Kontzeptua.
256. artikulua.- Betebeharrak.
257. artikulua.- Tramitazioa

Seigarren atala. Kontrol mozioak

258. artikulua.- Kontzeptua.
259. artikulua.- Betebeharrak.
260. artikulua.- Tramitazioa.
261. artikulua.- Zuzenketak
262. artikulua.- Eztabaidaren antolakuntza
263. artikulua.- Moxioa erretiratzea.
264. artikulua.- Bozketa.
265. artikulua.- Ondorioak.

Zazpigarren atala. Udal politikaren inguruko debate orokorra.

266. artikulua.- Kontzeptua.
267. artikulua.- Gobernu programaren gaineko debatea.
268. artikulua.- Eztabaidaren antolakuntza

Zortzigarren atala. Konfiantza-galdea.

269. artikulua.- Arautzea.

Bederatzigarren atala. Zentsura-moxioa.

270. artikulua.- Arautzea.

XIV. TITULUA. UDALBATZAREN FUNTZIONAMENDURAKO GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

1. KAPITULUA. UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIA

Lehen atala. Udalbatzako idazkari nagusi lanpostuaren titularra.

271. artikulua.- Organoaren beharra

- 272. artikulua.- Izaera eta izendapena
- 273. artikulua.- Ordezkapena.
- 274. artikulua.- Zereginak.
- 275. artikulua.- Txostenak

2. KAPITULUA. UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

- 276. artikulua.- Egitura eta dotazioak.
- 277. artikulua.- Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzua.

3. KAPITULUA. UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIKO ERREGISTROA

- 278. artikulua.- Xedea.
- 279. artikulua.- Arautzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA
BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOA

XEDEA

Gasteizko Udaleko Udaltzaren eta horren batzordeen berariazko arau organikoak finkatzea du xede araudi honek, horiek eratzeko moduari nahiz bilkura deialdiak egin eta horiek bideratzeko moduari dagozkien prozedura-arauak zehazten direlarik eta Zinegotzien eskubide eta betebeharreri buruzko xedapenak onesten direlarik, baita Udaltza bere funtzionamendurako behar dituen baliabideez hornitzen ere.

Udalerriri dagozkion arautzeko eta bere burua antolatzeko ahalmenak baliatuz taxutu da araudia, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1. artikulua ildotik, guztia ere lege horren 123.1 artikuluko c) letra –Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak onetsitako moduan– aplikatuz Udaltzari dagozkion eskumenen esparruan.

ATARIKO TITULUA. GASTEIZKO UDALEKO HIZKUNTZA OFIZIALAK

1. artikulua.- Gasteizko Udaleko hizkuntza ofizialak.

Euskara eta gaztelania dira Gasteizko Udaleko hizkuntza ofizialak, eta bata nahiz bestea erabili ahal izango da. Gasteizko Udalaren argitalpen ofizialak elebidunak izango dira.

I. TITULUA. GASTEIZKO UDALA ERATZEA

2. artikulua.- Gasteizko Udala eratzea.

Indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera eratuko da Gasteizko Udala.

II. TITULUA. GASTEIZKO UDALBATZA

1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK

3. artikulua.- Osaera.

Herritarrek udal gobernuan duten ordezkatza politikoaren organo gorena da Gasteizko Udaleko Udaltza, zein demokratikoki hautatutako 27 Zinegotzik osatzen baitute –horien artean aukeratzen da Alkatea.

4. artikulua.- Eskumenak.

4.1. Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TJOAL) 123.1 artikuluan zerrendatutako eskumenak dagozkio Udaltzari:

4.1.1. Gobernu-organismoak kontrolatu eta fiskalizatzea.

4.1.2. Alkateari aurkeztutako zentsura-mozioa nahiz hark egindako konfiantza-galdea bozkatzeko, bozketa publikoaren bitartez, beti ere batzarkideei banan-banan beren izenez deitzen zaielarik, eta hauteskunde legedi orokorrean xedatutakoari jarraiki.

4.1.3. Izaera organikoa duten araudiak onetsi nahiz aldatzea. Izaera organikoa izango dute, beti ere, honako hauek:

- a) Udalbatza arautzeak.
- b) Udalerriko Gizarte Kontseilua arautzeak.
- c) Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia arautzeak.
- d) Herritarren parte-hartzea bideratzeko organo osagarriak eta prozedurak arautzeak.
- e) Udalerria barrutietan banatzeak eta bertako organoak zehaztu eta arautzeak, baita barrutietako ordezkatzeko eta parte-hartze organoen eskumenak zehazteak ere, Alkateak horien administrazio betearazlearen antolakuntza eta eskumenak zehazteko duen ahalmena gorabehera.
- f) Udal antolakuntzaren funtsezko mailak zehazteak, honako hauek jotzen direlarik halakotzat: gobernu arlo handiak, koordinatzaile nagusiak –zein zuzenean Tokiko Gobernu Batzarreko kideen menpe baitaude eta zuzendaritza nagusiak nahiz gobernu arlo beraren baitako antzeko organoak koordinatzea baitute beren zeregin, baita horien zerbitzu komunak kudeatzea eta antzeko zereginak ere– eta zuzendaritza nagusiak edo administrazio antolakuntzaren goreneko antzeko organoak; guztia ere organo horiek zenbat izango diren erabakitze nahiz beheragoko maila osagarriak ezartzeko Alkateak duen eskumena gorabehera.
- g) Erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organoa arautzeak.

4.1.4. Udal ordenantza eta araudiak onetsi nahiz aldatzea.

4.1.5. Honako hauei buruzko erabakiak: udalerria mugatu eta aldatzea; delako legearen 45. artikuluan adierazten diren erakundeak sortu edo desegitea; udalerriko hiriburua aldatzea eta udalerraren nahiz aipatutako erakundeen izena aldatzea, eta bertako bandera edo armarrria aukeratu edo aldatzea.

4.1.6. Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeko erabakiak.

4.1.7. Zerga-izaerako baliabide propioak zehaztea.

4.1.8. Aurrekontuak eta langileen plantilla onestea, eta bere eskumeneko gaietan gastuak baimentzea. Orobat onetsiko du dena delako ekitaldiko kontu orokorra.

4.1.9. Planeamendu orokorraren hasierako onespina eta hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako antolakuntza-planen eta gainerako instrumentuen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspina.

4.1.10. Zereginak edo jarduerak beste administrazio publikoren batera aldatzea, baita beste administrazioen batek beraren gain utzi edo emandako kudeatze lanak onartzea ere, salbu eta legez nahitaez ezartzen direnak.

4.1.11. Zerbitzuak kudeatzeko moduak zehaztea, baita Udalaren eskumeneko zerbitzuen kudeaketarako erakunde autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta merkataritza-elkarteak sortzeko erabakia hartzea ere, eta munizipalizatzeko dosierrak onestea.

4.1.12. Izaera orokorreko bere ekintza eta xedapenak ofizioz berrikusteko ahalmena.

4.1.13. Ekintza judizial eta administratiboak bideratzea, eta Udalbatzaren defentsa juridikoa, bere eskumeneko gaietan.

4.1.14. Udaltzako kideen, bertako idazkariaren, Alkatearen, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen eta Udaleko zuzendaritza-organoen ordainsarien erregimena erabakitzea.

4.1.15. Eskumen-liskarrak planteatzea beste erakunde lokal eta administrazio publikoen aurrean.

4.1.16. Legearen 121.1. artikuluko azken atalean aurreikusitako ekimena erabakitzea, udalerrria X. tituluaren aplikazio-esparruan sartzerik izan dadin.

4.1.17. Udala partaide den sozietate, institutu, fundazio, elkarte eta bestelako erakundeetako ordezkariak izendatzea, berriazko arauei jarraiki, Gasteizko Udaleko beste organo batzuei dagozkien eskumenak gorabehera.

4.1.18. Legeek berriaz aitortzen dizkioten gainerakoak.

4.2. Orobat dagozkio legeak berak populazio handiko udalerriei aitortzen dien beste edozein eta lege mailako bestelako xedapenek leporatzen dizkiotenak.

2. KAPITULUA. UDALBATZAKO LEHENDAKARIA

5. artikulua.- Zereginak.

5.1. Udaltzaren zuzendaritza organoa Lehendakaria da, zeinek Udaltzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Eledunen Batzarraren laguntza izango baitu bere zereginak bideratzeko.

5.2. Zuzendaritza organoa izaki, Udaltzaren lanak ongi bideratzen direla bermatzen du Lehendakariak, bilkura deiak egin eta horien buru jarduten, eztabaidak zuzentzen eta ordena zaintzen horietan.

5.3. Araudi hau bete eta betearaztea dagokio Lehendakariari, zalantza izanez gero interpretatuz eta esan gabekorik izanez gero hutsuneak betez.

5.4. Orobat egiten ditu Lehendakariak legeek eta araudi honek aitortzen dizkioten gainerako zereginak.

6. artikulua.- Besteren gain uztea.

Alkateari dagokio Udaltzako Lehendakari izatea, baina Zinegotziren baten gain utzi ahal izango du zeregin hori egoki baderitzo, arrazoiak azaldu ondoren.

7. artikulua.- Ordezkatzea.

7.1. Alkatea bertan ez bada edo gaixorik badago, edo kargua hutsik badago, eta Udaltzako Lehendakari zereginak besteren gain utzi gabe baditu, Alkateorde batek ordezkatuko du, izendapeneko ordena aintzat hartuta.

7.2. Lehendakari zereginak besteren gain utzita badaude, orduan aurreikusitako eran ordezkatuko da hura.

7.3. Berriazko deklarazio-ekintzarik behar izan gabe egingo da ordezkapena, eta Udaltzako jakinaren gainean jarri beharko da.

3. KAPITULUA. BILKUREN ERREGIMENA

8. artikulua.- Bilkura motak.

Erregimen hau izango du Udalbatzak:

- ohiko bilkurak, eta
- aparteko bilkurak, zein, gainera, premiazkoak izan ahalko baitira.

9. artikulua.- Ohiko bilkurak.

Ohiko bilkurak –maiztasun jakinarekin aldi behin egiten direnak– Udalbatzaren organoen bilkuren egutegian adierazten diren egun eta orduetan egingo dira –Eledunen Batzarrak onetsiko du egutegi hori–. Gutxienez ere hilean behin egin beharko dira, nahiz eta abuztuko ohiko bilkura bertan behera utzi ahal izango den, oporraldia izaki, udal gaien kudeaketak bilkura egitera behartzen ez badu.

10. artikulua.- Aparteko bilkurak.

Aparteko bilkurak Lehendakariak hala erabakitzen duenean egingo dira, edo gutxienez ere Udalbatzako kideen legezko kopuruaren laurden batek eskatzen duenean; nolatan ere, Zinegotzi berak ezingo ditu urtean 3 baino gehiago eskatu.

Eskariak bere baitan hartzen dituen gaiak ezingo dira sartu Udalbatzaren ohiko bilkura baten gai-zerrendan, ezta gai gehiago dituen aparteko beste batean ere, salbu eta eskaria egiten dutenek berariaz ematen dutelarik baimena.

11. artikulua.- Herritarrek parte hartzearen baitako gaiak.

3 hilean behin, HERRITARREN PARTE-HARTZAREN ALORREKO GAIAK sartuko dira Udalbatzaren ohiko bilkuran, eta atal horretan bilduko Herritarren Parte-hartze Batzordeak irizpena eman dien gaiak.

4. KAPITULUA. UDALBATZAREN BILKURETARAKO DEIALDIA

12. artikulua.- Ohiko bilkuretarako deialdia.

Lehendakariak egingo du Udalbatzaren ohiko bilkuretarako deialdia, gutxienez ere 3 lanegun lehenago.

13. artikulua.- Aparteko bilkuretarako deialdia.

13.1. Udalbatzaren aparteko bilkuretarako deialdia Lehendakariak egingo du, epe berarekin, salbu eta premiazkoak direnean –Udalbatzak berak berretsi beharko du, halakoetan, bilkura premiazkoa dela.

13.2. Udalbatzaren aparteko bilkurarako deialdia egiteko ekimena, behar diren arrazoiak ematen direlarik, Lehendakariarena edo gutxienez ere Udalbatzako kideen legezko kopuruaren laurden batena izan ahalko da –Zinegotzi berak ezingo ditu urtean 3 baino gehiago eskatu.

13.3. Zinegotzien eskariz deitutako aparteko bilkurak egitea ezingo da atzeratu 15 lanegun baino gehiago, eskabidea Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan sartzen denetik kontatuta. Idatziz egin beharko da eskaria, eta sustatzaile guztiek izenpetu beharko dute pertsonalki; orobat adierazi beharko dira deialdia egiteko arrazoiak eta zerrendan sartu beharreko gaiak, eta erabaki-proposamenen testuak erantsi.

13.4. Udalbatzako idazkariak uste badu eskabideak ez dituela betetzen betebeharroriek, Lehendakariari eta egileei jakinaraziko die, idatziz. Jakinarazpen hori aintzat hartuta, edo bestelako arrazoi justifikatuak ematen dituelarik, deialdia ukatzea ebatzi ahal izango du Lehendakariak. 15 laneguneko epearen barruan eman beharko zaie eskatzaileei ebazpen horren berri, erregistro datatik kontatuta.

13.5. Baldin eta Lehendakariak ez badu eskatutako aparteko bilkurarako deialdirik egiten behar bezala eta adierazitako epean, ezta hori ukatzeko ebazpenik ematen ere, automatikoki deitua geratuko da bilkura, epe hori bukatu ondorengo hamargarren laneguneko 12etarako. Udalbatzako kide guztiei jakinaraziko die hori idazkariak, deialdia egiteko epea bukatzen den egunaren ondoren lanegun egokitzen den lehenengo egunean.

14. artikulua.- Eledunen Batzarraren jarduna.

Beti ere, Eledunen Batzarrari entzun ondoren egingo da deialdia.

15. artikulua.- Deialdiaren berri ematea.

15.1. artikulua. Udal taldeei, horiei atxiki gabeko Zinegotziei –halakorik bada– eta herritarren txanda eta ekimenen eledunei bakoitzari esleitutako aretoetan jakinaraziko zaizkie deialdiak; taldeko kide guztiak jakinaren gainean jartzeko, aski izango da batek jakinarazpena jasotzea.

15.2. Edozein baliabide elektroniko, informatiko nahiz telematiko baliatu ahal izango da deialdien jakinarazpenak gauzatzeko, baldin eta erabat bermatua geratzen bada jasotzen direla.

15.3. Zerrendan sartutako gaietarako dokumentazio guztia eskuragarri izan beharko dute Zinegotziek eta herritarren txanda eta ekimenen eledunek deialdia jakitera ematen zaien egunetik bertatik, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian.

5. KAPITULUA. ASISTENTZIA-QUORUMA

16. artikulua.- Lehenengo deialdian eratzea.

Adierazitako orduan –betiere Eledunen Batzarrak ezarritako malgutasunaren barruan– kideen legezko kopuruaren heren baten asistentziarekin eratzen da Udalbatza balio osoz, baldin eta lehendakaria horien artean badago; gainera, beharrezkoa da idazkaria edo hura ordezkatzeko duena ere bertan izatea.

17. artikulua.- Bigarren deialdian eratzea.

Lehenengo deialdian ez bada lortzen eskatzen den asistentzia, automatikoki egingo da bigarren deialdia, 2 egun geroagorako, hain zuzen lehen deialdiko ordu bererako, eta hartan jasotako gainerakoei eusten zaielarik. Orduan ere ez bada lortzen beharrezko den quoruma, bertan behera utziko du deialdia Lehendakariak, eta atzeratu egingo du zerrendan sartutako gaiak aztertzea hurrena egingo den lehen bilkurara arte, dela ohiko bilkura, dela apartekoa.

18. artikulua.- Deialdia legearen aginduz egitea.

Salbuespen gisa, Udalbatzaren aparteko bilkurarako deialdi automatikoaren kasuan, balio osoz eratutzat joko da Udalbatza kideen legezko kopuruaren heren bat bertan delarik, baita Lehendakaria ez badago ere. Halakoetan, bertan diren Udalbatzako kideen artean zaharrenari egokituko zaio Lehendakari izatea.

19. artikulua.- Asistentzia-quorumari eustea.

Bilkurak dirauen denbora guztian eutsi beharko zaio, etenik gabe, bertan direnen gutxieneko kopuruari.

6. KAPITULUA. UDALBATZAREN BILKUREN GAI-ZERRENDAA

Lehen atala. Egitura.

20. art. Udalbatzaren ohiko bilkurak

- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onestea.
- Ebatzi beharrekoak
- Udalbatzaren batzordeek irizpenetan egindako proposizioak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Gobernu Batzarrak onetsi eta udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proiektuak.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proposamenak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- *Herritarrek parte hartzearen baitako gaiak (hiru hilean behin)*
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Premia arrazoiak direla-eta udalbatzaz beste organo batzuek erabakitako ekintza-bideratzeak berrestea
- Premiazko mozioak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Kontrol jarduera
- Herritarren txandako ekimenak:
- Udal gobernuko organoen agerraldiak
- Udal gobernuaren ebazpen eta komunikazioen berri jasotzea, baita alkatea nahiz Gobernu Batzarra ordezkatzan duten organo guztienena ere
- Epaileen ebazpenen berri jasotzea
- Herritarren mozioak eta ekimenak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Eskeak
- Galdeak
- Interpelazioak
- **Herritarren txanda, loturarik gabea**

21. artikulua.- Udalbatzaren aparteko bilkurak

- Ebatzi beharrekoak
- Udalbatzaren batzordeek irizpenetan egindako proposizioak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Gobernu Batzarrak onetsi eta udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proiektuak.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proposamenak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*
- Herritarrek parte hartzearen baitako gaiak
 - *Herritarren txanda, horien inguruan*

- Premia arrazoiak zirela-eta erabakitako ekintza-bideratzeak berrestea

- Kontrol jarduera

- **Herritarren txandako ekimenak eta herritarren ekimenak**

- Udal gobernuko organoen agerraldiak

- Udal gobernuaren ebazpen eta komunikazioen berri jasotzea, baita alkatea nahiz Gobernu Batzarra ordezkatzan duten organo guztienena ere

- Epaileen ebazpenen berri jasotzea

- Mozioak

- *Herritarren txanda, horien inguruan*

- Eskeak

- Galdeak

- Interpelazioak

- *Herritarren txanda, horien inguruan*

22. artikulua.- Udalbatzaren aparteko kontrol bilkurak.

- Kontrol jarduera:

- Udal gobernuko organoren bat gaitzestea.

- Konfiantza-galdea.

- Zentsura-mozioa.

- Politika orokorraren gaineko eztabaida.

23. artikulua.- Udalbatzaren aparteko eta premiazko bilkurak

- Udalbatzak bilkura egiteko premia dagoen erabakitzea, arrazoiak azaldu ondoren

- Ebatzi beharrekoak

- Premiazko mozioak

- *Herritarren txanda, horien inguruan*

- Kontrol jarduera

- **Herritarren txandako ekimenak eta herritarren ekimenak**

- Udal gobernuko organoen agerraldiak

- Mozioak

Herritarren txanda, horien inguruan

- **Herritarren txanda, loturarik gabea**

Bigarren atala. Agiriak aurkeztea eta epeak kontatzea.

24. artikulua.- Arau orokorrak.

Udalbatza jakinaren gainean jartzeko eta haren bilkuretan eztabaidatzeko diren agiriak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan sartu beharko dira, beti ere araudi honetan, agirien izaera aintzat hartuta, finkatzen diren epeak betetzen direlarik. Nolanahi ere, izenpetzen dituztenen identifikazio pertsonala eduki beharko dute beren baitan, eta, Alkateak, Zinegotziek edo udal taldeek aurkeztuak ez badira, telefono edo helbide elektronikoko bat adierazi beharko da bertan, harremanetarako.

25. artikulua.- Bideratutako ekintzak berresteko proposamenak.

Bideratutako ekintzak berresteko proposamenak ebatziko direneko Udalbatzaren bilkuraren gai-zerrendaren inguruan udal taldeei entzuteko deitzen den Eledunen Batzarra egiten den eguneko 12:00ak baino lehenago erregistratu beharko dira.

26. artikulua.- Agerraldia egiteko erabakia hartzeko eskabideak.

Udal gobernuko organoren bat Udalbatzaren aurrera agertzeko obligazioa dakarren erabakia hartzeko eskabideak bilkura baino gutxienez 6 egun natural lehenago erregistratu beharko dira. Halako erabakiak hartzen direlarik, agerraldia egitea aurreikusten den bilkura baino gutxienez hiru lanegun lehenago jakinaraziko zaizkio Udalbatzaren aurrera agertu behar duenari.

27. artikulua.- Udalbatzaren aurrera agertzeko eskabideak.

Udal gobernuko organoek beren ekimenez sustatzen dituztelarik Udalbatzaren aurrera agertzeko eskabideak, agerraldia egitea eskatzen den bilkura baino gutxienez 6 egun natural lehenago erregistratu beharko dira, salbu eta Udalbatzaren aparteko eta premiazko bilkurarako deialdia egitea justifikatzen duten arrazoietan oinarritzen denean eskabidea, berariazko araudia izango baita halakoetarako.

28. artikulua.- Udal gobernuaren ebazpenak eta komunikazioak.

Udal gobernuaren ebazpenak eta komunikazioak berorien berri ematea eskatzen den Udalbatzaren bilkuraren gai-zerrendaren inguruan udal taldeei entzuteko deitzen den Eledunen Batzarra egiten den eguneko 12:00ak baino lehenago erregistratu beharko dira.

29. artikulua.- Mozioak

Mozioak bilkura baino gutxienez sei egun natural lehenago erregistratu beharko dira, udal taldeek aurkezten dituztelarik nahiz dagozkien erregistro ofizialetan izena emanda dauden herritar-erakunderen batek aurkezten dituelarik nahiz **herritarren partaidetzarako udal organoek aurkezten dituztelarik**, edo herritarren ekimenez aurkezten direlarik —azken horiek boto-eskubidea duten herritarren ehuneko 1en sinaduren eta udalbatzako sei zinegotziren abala izan beharko dute—. Albait lasterren emango die horien berri idazkari nagusiak alkateari eta gainerako udal taldeei, idatzizko zuzenketak aurkezteko aukera izan dezaten; horiek, berriz, mozioa eztabaidatuko den bilkura baino gutxienez lanegun bat lehenago erregistratu beharko dira. Orobat onartuko da zuzenketak ahoz aurkeztea, eztabaidan zehar.

30. artikulua.- Interpelazioak.

Interpelazioak bilkura baino gutxienez 4 lanegun lehenago erregistratu beharko dira.

31. artikulua.- Eskeak.

31.1. Eskeak ahoz nahiz idatziz egin ahal izango dira.

31.2. Idatziz egiten direnak Erregistroan sartu ondoren egokitzen den lehenengo bilkuran eztabaidatuko dira, baldin eta Eledunen Batzarrak bilkura egin baino lanegun bat lehenago erregistratzen badira.

31.3 Ahoz egiten direnak ere egin ondoren egokitzen den lehenengo bilkuran eztabaidatuko dira, nahiz eta egiten diren bilkuran bertan ere eztabaidatu ahal izango diren, Lehendakariak hala erabakiz gero.

32. artikulua.- Galdeak.

Udalbatzan erantzun daitezten idatziz egiten diren galdeak bilkura baino gutxienez 4 lanegun lehenago erregistratu beharko dira; hala ere, hurrengo bilkura arte atzeratu ahal izango du erantzuna horien hartzaileak, horretarako arrazoiak agertzen dituelarik. Bilkuran bertan ere egin ahal izango dira galdeak, ahoz. Halakoetan, oro har, hurrengo bilkuran erantzungo ditu hartzaileak, nahiz eta, egoki baderitzo, momentuan bertan ere erantzun ahal izango dituen.

33. artikulua.- Beste.

Herritarren ekimenak, herri ekimenak, udal gobernuko organoen gaitzespena, konfiantza-galdea eta zentsura-mozioa berariazko araudiari jarraiki arautuko dira.

Hirugarren atala. Udalbatzaren gai-zerrendan sartutako dosierren kontsulta.

34. artikulua.- Dosierrak kontsultatzea.

Zinegotzi orok kontsultatu ahal izango du, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren bulegoetan, gai-zerrendan sartutako gaiei dagokien dokumentazio guztia, deialdiaren berri ematen den egunetik bertatik. Horretarako, Eledunen Batzarra egingo den eguna baino 2 lanegun lehenago emanda egon beharko dute gaiei buruzko irizpenak.

Lauugarren atala. Udalbatzaren bilkuretarako deialdien publikotasuna.

35. artikulua.- Deialdien publikotasuna.

Udalbatzaren bilkuren gai-zerrenda eta dokumentazioa Udalaren iragarki-tauletan eta Udalaren web-gunean jarriko dira bilkura egin arte, beti ere Datuak Babesteko Legea ezarritakoa betez, salbu eta deialdia premiazko izaerarekin egiten delarik horretarako denborarik ez dagoenean. Hala eskatzen duten erakundeetara ere bidaliko da, Lehendakariak baimena ematen duelarik.

Bosgarren atala. Herritarren txanda.

36. art. Herritarren txanda osoko bilkuretan.

36.1. **Herritarren partaidetzarako udal-organismoek eta** dagozkien erregistro ofizialetan izena emana duten herritar erakundeek Udalbatzaren batzordeen eta Udalbatzaren gai-zerrenden berri izateko eskubidea dute, eta azalpenak eman ahalko dituzte Udalbatzaren aurrean, interesdun gisa prozeduran esku hartu duten gai-zerrendako punturen baten inguruan.

36.2. Kontrol-jardueraren baitan ere aurkeztu ahal izango dituzte ekimenak, beren intereseko edozien gairen inguruan.

36.3. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkeztu beharko dira eskabide edo ekimen horiek, parte hartzea eskatzen den Udalbatzaren bilkuraren gai-zerrendaren inguruan udal taldeei entzuteko deitzen den Eledunen Batzarra egiten den eguneko 12:00ak baino lehen.

36.4. Izenpetzen dituztenen identifikazio pertsonala jaso beharko dute beti ere, baita harremanetarako telefono edo helbide elektroniko bat ere.

Orobat adierazi beharko da Udalbatzaren bilkuran hitz egingo dutenen identifikazioa, zeinek baimena eman beharko dioten herritarren txandan adierazi diren iritziak ea irudiak grabatu eta hedatzeari.

36.5. Bilkura horretan, herritar erakundearen ordezkariak bi txanda izango dituzte, 10 minutukoa lehena, eta 5ekoa bigarrena. Herritarren txandaren mintzaldi bakoitzaren ondoren, udal taldeen txanda bana irekiko da.

36.6. Bestetik, lau hilean behin aparteko osoko bilkurak deitu ahalko dira, **herritarren partaidetzarako udal organoen eta dagozkien erregistro ofizialetan** izena emanda duten herritar erakundeen ekimenez haientzat interesgarriak diren gaiak aztertzeke, boto eskubidea duten herritarren ehuneko baten sinaduren abala badute.

36.7. Ohiko zein aparteko osoko bilkura izan, Eledunen Batzarrak aztertuko ditu gaiak gairerrendan sartu aurretik, eta arrazoiak azalduz bazter utzi ahalko ditu baldin eta gaia aurreko bilkuraren batean dagoeneko aztertu dela eta ez dagoela berriro eztabaidatzeko osagai berririk uste badu.

36.8 Herritarren partaidetzarako udal organoek eta dagozkien erregistro ofizialetan izena emanda dauden herritar-entitateek aurkeztutako ekimenak Erregelamendu honetako II. Tituluko 6. Kapituluan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira. Alabaina, ekimenaren aurkezleek gai-zerrendan aldaketarik egitea nahiko balukete, Eledunen Batzarrak eskaera hori aztertuko du, herritarren partaidetza errazteko asmoz.

7. KAPITULUA. UDALBATZAK IZAERA BETEARAZLEKO ERABAKIAK HARTZEKO PROPOSAMEN MOTAK

37. artikulua.- Udalbatzaren batzordeek irizpenetan egindako proposizioak.

Udal talde baten nahiz batzuen ekimenez –delako arloan eskumena duen Udalbatzaren batzordeak dosierra aztertu eta irizpena eman ondoren– Udalbatzari aurkezten zaizkion proposamenak dira. Parte bat azalpena edo justifikazioa izango dute eta bestea hartu nahi den erabakia.

38. artikulua.- Gobernu Batzarrak onetsi eta Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proiektuak.

Gobernu Batzarrak bere eskumenak baliatuz onetsi eta delako arloan eskumena duen Udalbatzaren batzordeak dosierra aztertu eta irizpena eman ondoren Udalbatzari aurkezten zaizkion proposamenak dira.

39. artikulua.- Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako proposamenak.

Alkatearen nahiz Zinegotziren baten ekimenez –delako arloan eskumena duen Udalbatzaren batzordeak dosierra aztertu eta irizpena eman ondoren– Udalbatzari aurkezten zaizkion proposamenak dira.

40. artikulua.- Premia arrazoiak direla-eta bestelako organoek erabakitako ekintza-bideratzeak berrestea.

Alkateak nahiz hark zeregin hori ordezkotzan eman dien bestelako organoek hartutako ebazpenak ontzat emateko proposamenak dira, ebazpen horien bitartez Udalbatzaren eskumeneko gaitan ekintza judizialak edo administratiboak bideratzeko agindu zaielarik zerbitzu juridikoei, hala egitea premiazkoa izaki Udalbatzak berak lehenago erabaki hori hartzeko aukerarik izan ez duela eta.

41. artikulua.- Premiazko mozioak.

41.1. Gobernu organoen nahiz edozein udal talderen ekimenez eta alde zuzenetik delako arloan eskumena duen Udaltzaren batzordeak dosierra aztertu eta irizpena eman gabe Udaltzari aurkezten zaizkion proposamenak dira.

41.2. Gai-zerrendan sartu gabeko eta Udaltzaren batzordeek irizpena eman gabeko gaiei buruzko erabakiak hartu ahal izango dira ohiko bilkuretan baldin eta Lehendakariak, Udaltzako kideen legezko kopuruaren gutxienez laurden batek edo udal taldeen eledunen batek hala proposatu eta, bozketa egiten delarik, delako premiazko mozioa sartzeko gehiengo absolutuz onartzen bada. Hala izan ezean, gai zerrendan sartu gabeko gaien inguruan hartutako erabakiak erabat baliogabeak izango dira.

41.3. Premiazko izaeraz deitutako aparteko bilkuretan ezingo da eskatu alde zuzenetik Udaltzaren batzordeek irizpena emana izatea eztabaidatu beharreko kontuen gainean.

8. KAPITULUA. EZTABAIDAK ZUZENTZEA

42. artikulua.- Lehendakariaren zereginak.

Lehendakariari dagokio bilkura zuzendu eta eztabaidak bideratzea.

43. artikulua.- Eztabaidaren antolakuntza orokorra.

Gai-zerrendan sartutako gaiak bertan finkatutako ordenari jarraiki aztertu eta eztabaidatuko dira, salbu eta Lehendakariak, arrazoiak azaldu ondoren, hori aldatzea erabakitzen bada.

44. artikulua.- Gaiak mahai gainean uztea. Zerrendatik kentzea.

44.1. Lehendakariak edo edozein Zinegotzik uste badu gairen batek gehiago aztertzea eskatzen duela, edo datu edo agiri osagarriak aurkeztea, mahai gainean gera dadila proposatu ahal izango du. Bertan direnen gehiengoaren aldeko botoa lortzen badu bakarrik egingo du aurrera proposamen horrek.

44.2. Zinegotzien ekimenez deitutako aparteko bilkura izanez gero, proposamena egin dutenen adostasuna beharko da gaia mahai gainean uzteko, zerrendatik kentzeko nahiz gai-zerrendan edonolako aldaketa egiteko.

45. artikulua.- Mintzatzeko txandak.

45.1. Mintzatu nahi diren udal taldeen eledunei emango die hitza Lehendakariak banan-banan, kasuan kasu Eledunen Batzarrak finkatutako ordena eta denbora-banaketa aintzat hartuta. Ez bada alde zuzenetik berariaz finkatu, talde bakoitzaren Zinegotzi kopuruaren arabera erabakiko da ordena –gutxien dituen lehena, gehien dituen azken–, eta bakoitzaren mintzaldiak 10 minutu iraungo du lehenengo txandan, eta 5 bigarrean.

45.2. Botoa azaltzeko hirugarren txanda batean mintzatzeko aukera emango die Lehendakariak eztabaidan parte hartu ez duten nahiz eztabaidaren ondoren botoa aldatu duten taldeen eledunei, baita beren taldeko gainerako kideek emandakoaz bestelako botoa eman duten Zinegotzietan ere. 3 minutuko mintzaldia egin ahal izango da halakoetan.

45.3. Nolanahi ere, Eledunen Batzarrak denbora horiek aldatzerik izango du, gai zerrendan sartutako gaien kopurua aintzat hartuta.

9. KAPITULUA. BOZKETAK

Lehen atala. Botoaren izaera eta esanahia.

46. artikulua.- Botoaren izaera.

Zinegotzien botoa pertsonala da, eta ezin da besteren esku utzi.

47. artikulua.- Botoaren esanahia.

Baiezko nahiz ezezko botoa eman ahal izango da; halaber, abstenitzerik ere izango dute Udalbatzako kideek.

Bigarren atala. Bozketa motak.

48. artikulua.- Bozketa motak.

Arruntak, izenaren araberakoak eta isilpekoak izan daitezke bozketak.

49. artikulua.- Ohiko bozketak.

Adostasuna, ezadostasuna nahiz abstentzioa konbentziorako keinuen bidez adierazten dira bozketa arruntetan, eta bitarteko mekaniko edo elektronikoen bidez zenbatu ahalko dira.

50. artikulua.- Izenaren araberako bozketak.

Deituren ordena alfabetikoan deituz –beti ere Lehendakaria azkena– egiten direnak dira izenaren araberako bozketak; Udalbatzako kide bakoitzak, deitzen zaionean, ozenki erantzun behar du “bai”, “ez” edo “abstentzioa”, hizkuntza ofizialetako batean nahiz bestean.

51. artikulua.- Isilpeko bozketak.

Papertxoaren bitartez egiten direnak dira isilpekoak; banan-banan, ontzi batean utzi behar dute botoa Udalbatzako kideek.

Hirugarren atala. Bozkatzeko modua.

52. artikulua.- Modu normala.

Bozketa arrunta izango da modu normala.

53. artikulua.- Izenaren araberako bozketa noiz egingo den.

Izenaren araberakoa egiteko aski izango da Udalbatzako kide batek eskatzea.

54. artikulua.- Isilpeko bozketa noiz egingo den.

54.1. Inor hautatu nahiz kargutik kentzeko baliatuko da isilpeko bozketa.

54.2. Ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea nahiz norberaren irudia zaintzeko eskubidea jokoan dagoenean ere baliatu ahal izango da isilpeko bozketa.

Laugarren atala. Bozkatuko den testua finkatzea.

55. artikulua.- Bozkatuko den testua finkatzea.

Izaera betearazlea duten erabakiak hartzeko edozein proposamen bozkatu aurretik, testua finkatuko du Lehendakariak; hain zuzen ere, bat etorriko da hori Gobernu Batzarrak onetsitako proposizio edo proiektuen nahiz Udalbatzaren batzordeek irizpena emandako erabaki-proposamenen, berresteko proposamenen edo premiazko mozioen idazkuntzarekin, hau da, bilkurako dosierretan jasotako testuekin, edo, halakorik gertatuz gero, alde aurretik transakzio adostuaren bidez nahiz bozketa bereziaren bidez onetsitako zuzenketa edo boto partikularren ondorio diren aldakuntzak txertatu ondoren geratzen denarekin.

56. artikulua.- Zatikako bozketa, izaera betearazlea duten erabakiak hartzeko.

Udal taldeen eledunen gehiengoz hala erabakitzen delarik –eta erabaki-proposamenek legalki aukera hori uzten dutelarik–, zatika edo puntuka bozkatu ahal izango dira proposamenak.

57. artikulua.- Zatikako bozketa, kontrol jarduerako erabakiak hartzeko.

Kontrol jardueraren baitako gaien inguruko erabakiak hartzeko, talderen batek hala eskatzen badu eta proposamena egin duen taldea ados badago, zatika edo puntuka bozkatu ahal izango dira mozioak. Proposamena egin duen taldearekin adostuko du Lehendakariak bozkatuko den ebazpenaren idazkuntza.

Bosgarren atala. Bozketaren nondik norakoak eta gehiengoak.

58. artikulua.- Bozketaren nondik norakoak.

Behin hasiz gero ezingo da bozketa eten, eta Lehendakariak ez dio Udalbatzako inongo kideri hitza emango. Halaber, bozketak dirauen bitartean ezingo dute aretotik alde egin bertan direnek, eta kanpoan direnei ez zaie sartzeko utziko.

59. artikulua.- Gehiengo soila.

Oro har, gehiengo soilez onetsiko dira gaiak, hau da, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean. Berdinketa gertatuz gero, berriro bozkatu ahal izango da, eta bigarrenez ere berdinketa gertatuz gero, Alkatearen kalitatezko botoak erabakiko du.

60. artikulua.- Gehiengo absolutua.

TJOALaren 123.1. artikuluko c), e), f), j) eta o) paragrafoetan adierazitako erabakiak nahiz hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako planeamendu orokorreko instrumentuen tramitazioan Udalbatzak hartu beharrekoak onesteko gehiengo absolutua beharko da, hau da, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren erdia baino gehiago izan beharko dute aldeko botoek.

61. artikulua.- Legez abstentziotzat jo beharrekoak.

Udalbatzaren bilkurara etorri badira ere bozketa egiten den unean beren aulkietan ez dauden Zinegotzien botoak abstentzio gisa zenbatuko dira.

10. KAPITULUA. DIZIPLINA

62. artikulua.- Hitz egitea.

62.1. Lehendakariak baimena ematen dielarik, hitz egin ahal izango dute Zinegotziek.

62.2 Baimena eman ondoren, ezingo ditu inork moztu, ez bada Lehendakariak, denbora agortu zaiela ohartarazteko, gaira mugatu daitezela eskatzeko, kontu hartzeko edo hitza kentzeko –ezarritako denbora igaro eta bi aldiz bukatzeko eskatu ondoren egingo du hori.

63. artikulua.- Ordena kontuak.

Edozein unetan eskatu ahal izango dute hitza korporazioko kideek ordena kontu bat argitzeko, aplikatzea eskatzen duten araua gogora ekartzen dutelarik. Lehendakariak ebatziko du egoki dena, eta ezingo da eztabaidarik egin hori dela eta.

64. artikulua.- Zeharkako aipamenengatik mintzatzea.

Baldin eta, Lehendakariaren ustez, Zinegotzi baten ohorea edo duintasuna nahiz jokabidea kolokan jartzen duen iritzi edo oker esanik biltzen duen zeharkako aipamenik egiten bada eztabaidan zehar, hitza eman ahalko dio hark dena delakoari, gehienez ere 3 minutuz mintza dadin –eztabaidaren gaian sartu gabe– eta, hartara, zeharkako aipamenari erantzun diezaion.

65. artikulua.- Kontu hartzea.

65.1. Lehendakariak kontu hartu ahalko dio Udalbatzako edozein kideri, baldin eta:

- Udalbatzaren edo bertako kideen ohorea, instituzio publikoena nahiz beste edonorena edo edozein erakunderena iraintzen duten hitzak edo iritziak botatzen baditu.
- Etenaldiak sortzen baditu edo, beste edozein modutan, bilkuretako ordena zapuzten badu.
- Hitza eman aurretik nahiz kendu ondoren hitz egin nahi badu.

65.2 Bilkura berean 3 bider kontu hartzen badio Lehendakariak Udalbatzako kideren bati –hirugarrenez kontu hartzeak berekin ekarriko dituen ondorioez ohartaraziko dio bigarreanean–, Udalbatzatik joateko agindu ahalko dio, baita hura botatzeko behar diren neurriak hartu ere.

66. artikulua.- Portaera arauak.

Aurreko artikuluan araututakoaren ildotik –beti ere kargu publikoen adierazpen-askatasuna guztiz errespetatzen delarik–, elkarrekiko erabateko begirunea erakutsi beharko dute Udalbatzako kide guztiek, baita udal esparruko esku-hartze publiko guztietan elkarrekin gizalagez jokatu ere; bereziki, Udalbatzaren eztabaidetan.

11. KAPITULUA. UDALBATZAREN BILKUREN AKTAK

67. artikulua.- Aktak egitea.

67.1 Udalbatzaren bilkura ororen **akta idatzia egingo da**, zeinean xehetasun hauek jaso beharko baitira: bilkuraren lekua, eguna eta ordutegia, Lehendakaria eta idazkaria bertan zirela, bertan izandakoen zerrenda –behar adina izan beharko dute–, **Herritarren txanda balego, baita hitz egin dutenen zerrenda**, bilkuraren izaera eta lehen deialdian ala bigarreanean egiten den, landutako gaien adierazpena, egin diren bozketak eta horien emaitzak, hartutako erabakien xedatze zatia eta aipatzekoak diren bestelako gorabeherak, halakorik baldin badago.

67.2 Akta horren osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatuko dira. Grabazioaren ondoriozko artxiboa aktari lagunduko dio, bilkuran zehar euskarri elektronikoko beste ezein agirirekin eta Udalbatzaren idazkari nagusiak haren osotasuna eta benekotasuna ziurtatzen duen egiaztagiriarekin batera, eta zinegotzi guztien eskura jarriko da.

67 bis artikulua. Bilkuren emankizuna eta grabazioen hedapena

Bilkurak zuzenean eman ahal izango dira streaming bidez.

Grabatutako irudiak eta audioa editatu ahal izango dira, xede harturik erraztea grabazioaren ikusmena eta, ondorioz, baita bilkuran izandako mintzaldien eta hartutako erabakien jarraipena. Galarazi egingo da datu pertsonalen baimenik gabeko hedapena.

Artxibo editatuak eskuragarri izango dira Udalaren webgunean, gehienez ere hiru egun balioduneko epean.

68. artikulua.- Onestea.

Aktak, egin ondoren, Udalbatzak onetsi beharko ditu, eta hurrengo bilkuran aurkeztuko dira horretarako. Edukiari buruzko oharrik egiten bada, eztabaidatu eta behar diren zuzenketak erabakiko dira, baina ezingo dute, inolaz ere, hartutako erabakien funtsezko aldakuntzarik ekarri berekin, akats materialak edo gitezkoak zuzentzera mugatu beharko baitute.

69. artikulua.- Akten liburua.

Onetsi ostean, aktak "Gasteizko Udaleko Udalbatzaren akten liburura" aldatuko dira, zeina osatzen duen akta idatzien eta 67. artikuluan adierazitako artxibo eta agirien baturak, Udalbatzako idazkari nagusiaren eta lehendakariaren izenpeak hala baimentzen duelarik.

III. TITULUA.- ZINEGOTZIAREN ESTATUTUA

1. KAPITULUA. ARAUTZEA

70. artikulua.- Arautzea.

Hauteskunde legedian arautuko da zein izango den Zinegotzi kopurua, eta, halaber, horiek hautatzeko prozedura, agintaldiaren iraupena, eta noiz ezingo den norbait Zinegotzi hautatu edo noiz izango den hori beste zerbaitekin bateraezin; baita Zinegotzi izaera nola lortzen den, etenda geratzen den eta galtzen den ere.

2. KAPITULUA. ZINEGOTZIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

71. artikulua.- Eskubideak eta betebeharrak.

Beren karguaz jabetzen direlarik, estatuko nahiz Eusko Legebiltzarraren legeek finkatzen dituzten ohoreak, pribilegioak eta adeitasuna zor izango zaie Zinegotziei, eta karguari dagozkion betebehar eta eginbideak estu-estu betetzera behartuta egongo dira.

3. KAPITULUA. BILKURETARA JOATEKO ESKUBIDEA ETA JOAN BEHARRA

72. artikulua.- Joateko eskubidea eta joan beharra.

72.1. Udalbatzaren eta zinegotzi diren aldetik kide diren bestelako organo kolegiatuen –udal organoak nahiz bestelakoak izan– bilkuretara joateko eskubidea dute Zinegotziek –ahotsa eta botoa izango dute horietan–, baita horietara joan beharra ere, hori galarazten dien arrazoirik dutenean salbu –halakoetan, garaiz jakinarazi beharko diote dena delako organoko Lehendakariari, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren bitartez.

72.2. Orobat izango dute joan beharra Zinegotzi diren aldetik kide diren organo kolegiatuen bilkuretara.

4. KAPITULUA. INFORMAZIOA IZATEKO ESKUBIDEA

73. artikulua.- Tramitatzen ari diren dosierrak irispidean edukitzeko eskubidea.

Gobernuan dituzten ardurei behar bezala erantzuteko, udal organo kolegiatuetako kide diren aldetik dituzten eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko nahiz kontrol eta fiskalizazio lanak egiteko, Zinegotzi guztiek dute eskubidea udal administrazioaren esku dauden agirien baitako edozein informazio eskatzeko, zuzenean, udal langileei, dena delako dosierraren tramitazioaren egoera edozein delarik ere, bai eta horien kopia eskatzeko ere, baldin eta informazio hori emateak legez ezarritako mugak hausten ez baditu. Muga horiek noraino iristen diren adostasunik ez badago, Alkateak ebatziko du auzia, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren iritzia entzun ondoren.

73 bis artikulua.- Informazioa eta dokumentazioa eskatzea.

73 bis.1. Zinegotzi guztiek eskatu ahalko dizkiete datuak, informazioa eta dokumentazioa udal organoetara, horrek txosten teknikoak lantzea eskatzen ez duen bitartean; horretarako, dagokion eskabidea egingo diote behar den Zinegotzi ordezkariari edo, kasua bada, gobernu kontseilariari.

73 bis. 2. Gehienez hogeita hamar eguneko epean bete beharko da eskabidea; betetzerik ez badago, hori eragozten duten arrazoiak adierazi beharko dira, idatziz, epe berean.

74. artikulua.- Datu estatistikoak irispidean edukitzeko eskubidea.

Datu estatistikoak ere hartuko ditu bere baitan informazio horrek –hala nola 010 telefonoan jasotako informazioa–, gobernuak eskura duen zehaztasun-maila berean gainera.

75. artikulua.- Jurisdikzio organoetako egintzak bidaltzea.

75.1. Alkateak Udalbatza ordezkatzuz jurisdikzio organoen aurrean egindako egintza dokumentatu guztiek talde politiko bakoitzaren esku egon behar dute Aholkularitza Juridikoaren bulegoetan, agiriak sinatzen diren egunetik hasita lanegun bakar bateko epe luzaezinaren barruan.

75.2. Aholkularitza Juridikoak, astero, aurreko paragrafoan zehaztutako agirien zerrenda bidali behar dio talde politiko bakoitzari, edukiaren aipamen labur bat atxikirik.

76. artikulua.- Informazioa isilpean gorde beharra.

Aldi berean, eskuratzen den informazioa isilpean gordetzeko beharra dakar horrek berekin, bereziki hala ez egiteak herritarren eskubide eta askatasun konstituzionalei eragin badiezaieke, edo oraindik hartzeke dauden erabakien aurrekarien berri jasotzen bada.

77. artikulua.- Aldian behingo informazioa.

Zinegotzietara beren zereginak betetzeko beharrezko duten informazioa emate aldera, Alkateak, Zinegotzi ordezkariak eta Tokiko Gobernu Batzarrak emandako dekretu eta ebazpenen zerrendak igorriko zaizkie aldi behin, haiek informazioa eskatzeko duten eskubidea gorabehera.

78. artikulua.- Txosten teknikoak.

78.1. X bis tituluko 6. puntuan adierazten dena gorabehera, Udalbatzako zuzenbidezko kideen gutxienez bosten batek nahiz bosten hori egiten duten taldeen eledunek eskatu ahal izango dituzte Udalaren eskumeneko gai jakin bati buruzko txosten teknikoak. Eskari horrek ez

du inola ere eragingo gai horren inguruko eztabaida bertan behera uztea, salbu eta Udalbatzako edo Udalbatzaren Batzordeko kideen gehiengoak hala eskatzen badu.

78.2. Txosten horiek idatziz edo "in voce" eskatu ahal izango dira. Azken kasu horretan, gaia dena delako bilkuran eztabaidatzen ari dela bakarrik eskatu ahal izango da.

5. KAPITULUA. ORDAINSARIAK

79. artikulua.- Gutxieneko ordainsariak.

Udalbatzako kideek, gutxienez, B arloko buruek edo horien pareko funtzionarioek jasotzen dutenaren pareko ordainsaria jasoko dute urtean udal aurrekontuen kontura, bakoitzak bere dedikazio-mailari dagokion proportzioan, TJOALaren 75. artikuluan xedatutakoaren eta Udalbatzak hori garatzeko onesten dituen xedapenen ildotik. 10 eguneko epea izango da, Zinegotzi kargua hartzen denetik, dedikazio- erregimen jakin bat aukeratu eta horren berri jasotzen duen idazkia –Lehendakariari zuzendua– Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkezteko; nolana ere, edozein unetan eskatu ahal izango da gerora, modu berean, erregimen hori aldatzeko.

80. artikulua.- Asistentzia-dietak.

Ez erabateko dedikaziorik, ez dedikazio partzialik ez duten Udalbatzako kideek bakarrik jasoko dituzte dietak kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joateagatik –Udalbatzaren erabakiz zehaztuko da zenbatekoa. 2011ko ekitaldirako, 150 euroko dieta ezarri da Udalbatzaren bilkuretara joateagatik eta 115 eurokoa gainerako organo kolegiatuen bilkura bakoitzeko. Hurrengo ekitaldietan eguneratu egingo dira zenbateko horiek, korporazioko gainerako kideen ordainsarien eguneratzearen arabera.

81. artikulua.- Ardura bereziei dagozkien ordainsariak.

81.1. Alkatearen ordainsaria, EUDELen irizpideak kontuan harturik, A arloko zuzendariena baino ehuneko 33 handiagoa izango da, eta Alkateordeena, berriz, Alkatearen ordainsariaren ehuneko 85ekoa –erabateko dedikazioz jardun beharko da kargu horietan beti ere–. Alkateak Udalbatzaren Lehendakari Zinegotziren baten gain uzten duenean, horren ordainsaria Udalbatzak erabakitzen duena izango da.

81.2. Gobernu arloetako Zinegotzi ordezkarien ordainsaria Alkatearenaren ehuneko 80koa izango da, eta ordezkari bereziak dituzten Zinegotziarena, berriz, ehuneko 75ekoa, guztia ere EUDELen irizpideak kontuan hartzen direlarik.

81.3. Udal taldeen eledunek gobernu arloetako Zinegotzi ordezkariaren pareko ordainsaria jasoko dute.

81.4. Udalbatzaren batzorde bateko Lehendakari diren Zinegotzien ordainsariei ehuneko 10 gehiago zaie, ordezkari ez badute beren gain hartuta.

82. artikulua.- Uko egitea.

Zinegotziek uko egin ahal izango diete beren eskubide ekonomikoei, Udalbatzako idazkariari idazki bat aurkezten diotelarik horretarako.

6. KAPITULUA. ABSTENTZIOA ETA ERREFUSATZEA

83. artikulua.- Abstentzioa.

83.1. Legean finkatutako bateraezintasun-arrazoiak gorabehera, Zinegotziak, baita Zinegotzi izan gabe Gobernu Batzarreko kide direnak ere, abstenitu egin beharko dira gaiak eztabaidatu, bozkatu, erabaki eta betearazteko orduan parte hartzetik, baldin eta administrazio prozeduraren eta administrazio publikoen kontratuen legedian adierazten diren abstentzio-arrazoietakoren bat egokitzen bazaie.

83.2. Lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez –Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkeztuz– agertu beharko dute beren abstentzioa.

84. artikulua.- Ekintzen baliorik eza.

Halako arrazoiak izanda ere kideren batek esku hartzen badu, baliogabeak izango dira bideratutako ekintzak, haren esku hartzea erabakigarria izan bada.

85. artikulua.- Errefusatzea.

Halakoetan orobat errefusatu ahal izango dituzte prozeduretan interesatuek: Udalbatzako Lehendakariak ebatzi beharko ditu errefusatzeko horiek bertako kideen kontrakoak badira, eta Udalbatzak berak, aldiz, bertako Lehendakariaren kontrakoak badira.

7. KAPITULUA. INTERESEN ERREGISTROAK

Lehen atala. Deklarazioak.

86. artikulua.- Bateraezintasun-arrazoiaren gaineko deklarazioa egin beharra.

Zinegotzi guztiek, baita Zinegotzi izan gabe Gobernu Batzarreko kide direnek ere, deklarazioa egin beharko dute beren karguekin bateraezin izan litezkeen gainean, baita diru-sarrerak dakartzkien edo ekar diezazkiekeen edozein jardueraren gainean ere.

87. artikulua.- Ondasun eta kargen gaineko deklarazioa egin beharra.

Halaber, beren ondare-ondasunen gaineko deklarazioa egingo dute.

88. artikulua.- Ereduak.

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak prestatu eta Udalbatzak onesten dituen ereduak baliatuz aurkeztu beharko dira deklarazio horiek, eta karguaz jabetu aurretik, kargua utzitakoan nahiz adierazitako zer-nolakoak aldatzen direnean –aldakuntza gauzatu denetik 2 hilabete igaro aurretik– egin beharko dira.

89. artikulua.- Interesen erregistroen arduraduna.

Udalbatzako idazkariaren zeregina izango da Interesen Erregistroa eramatea eta zaintzea.

90. artikulua. Erregistro bereziak.

Segurtasun arrazoiak direla medio komenigarritzat jotzen bada, Arabako Foru Aldundian edo Eusko Jaurlaritzan horretarako jarritako erregistroetan egin ahal izango dira deklarazioak, berariazko araudiari jarraiki.

Bigarren atala. Erregistroak irispidean edukitzea.

91. artikulua.- Jardueren Erregistroa irispidean edukitzea.

Jardueren Erregistroa publikoa da.

92. artikulua.- Ondare-ondasunen Erregistroa irispidean edukitzea.

Legezko eta zuzeneko interesa egiaztatu beharko da Ondare-ondasunen Erregistroa inoren irispidean jartzekotan; beren karguko jardunean beharrezko izanez gero, berriz, legez eskatu ahal izango dute Zinegotziek erregistro horretako agiriak irispidean jar dakizkiela.

93. artikulua.- Iripidean jartzeko eskabideak.

Erregistroa irispidean jartzeko eskabideak idatziz egin beharko dira; eskatzaileak bere interesa egiaztatu beharko du, eta, informazioa zein Zinegotziri dagokion, hura identifikatu, baita zein agiriren berri jakin nahi duen zehaztu ere.

94. artikulua.- Iripidean jartzeko eskabideak ebatzea.

Erregistroa irispidean jartzeko eskabideak Lehendakariak ebatziko ditu, Udalbatzako idazkari nagusiak txostena egin ondoren, salbu eta Zinegotzi bat bere deklarazioaren kopia edo bertako datuak eskatzera mugatzen denean, halakoetan zuzenean emango baitio Udalbatzako idazkari nagusiak.

95. artikulua.- Iripidea edukitzeko moduak.

Eskatutako agiri zehatzak interesdunaren irispidean jartzeko, horien fotokopia erkatuak eskuratuko zaizkio, edo horiei buruzko ziurtagiria emango.

8. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNA

96. artikulua.- Erantzukizun zibila eta penala.

Erantzukizun zibilari eta penalari lotuak egongo dira Zinegotziak beren karguan dihardutela egindakoei nahiz egin gabe utzitakoei dagokienean, baita Zinegotzi ez diren Gobernu Batzarreko kideak ere. Eskumena duten epaitegietan eskatuko dira erantzukizunak, eta aplikagarri den ohiko prozedura baliatuz tramitatuko dira.

97. artikulua.- Udalbatzaren erabakiengatiko erantzukizuna.

Erabakiaren alde bozkatu duten Udalbatzako kideak izango dira Udalaren erabakien erantzule.

98. artikulua.- Erantzukizuna eskatzea.

Udalbatzaren erabakiz erantzukizuna eskatu ahal izango zaie bertako kideei engainua edo erru larria dela medio kalte eta galerak sortu badizkiete udal ogasunari edo besteri –baldin eta kalte-ordainak ordaindu badizkie, berak, kaltetuei.

99. artikulua.- Erantzukizuna aseguratzea.

Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun zibila, ahal den neurrian, aseguru poliza baten bitartez estali ahal izango da, Udalaren kontura.

100. artikulua.- Zinegotzi izaera baliatzea.

Zinegotziek ezingo dute zuzenean nahiz zeharka beren kargua arrazoitzat argudiatu, ezta hori baliatu ere, merkataritzaren, industriaren nahiz lanbidearen alorreko edozein jardueraren baitan –ez berez, ez besteren bitartez–, salbu eta legez Udala ordezkatzan duten egoera jakinetan eta horien baitan dagozkien helburuetarako.

101. artikulua.- Defentsa judiziala.

101.1. Behar den babesa emango die Udalak Zinegotziei beren zereginak askatasunez, modu baketsu eta eraginkorrean egiterik izan dezaten, eta behar duten laguntza juridikoa eskainiko modu bidegabean kalte egin diezaieketen ekintza edo ez-egiteen aurrean babesteko.

101.2. Alkateak erabakiko du, kasuan kasu, laguntza juridikoa ematea, dela Aholkularitza Juridikoaren bitartez, dela Udalez kanpoko legelarien bitartez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren.

9. KAPITULUA. UDAL TALDEAK

Lehen atala. Eratzea.

102. artikulua.- Udal taldeak eratzea.

Beren eskubideak baliatu eta betebeharrak betetze aldera, Udalbatzan ordezkaritza lortu duten hauteskunde-formazioekin bat etorriko diren udal talde politikoak eratuko dituzte Zinegotziek, oro har. Hauteskunde-koalizio gisa aurkeztu diren hautagai-zerrendak osatzen dituzten alderdiek aukeran izango dute talde bakarra egin edo talde bereziak eratzea.

103. artikulua.- Udal taldeak eratzeko modua.

Udalbatzako idazkari nagusiari zuzendutako idazkiaren bitartez eratuko dira talde horiek. Hain zuzen ere, hauexek adierazi beharko dira bertan: aukeratutako izena, taldea osatuko dutenen zerrenda eta eleduna nor izango den –eledun titularraren ordezkoa ere izendatu ahal izango da, baita, 7 Zinegotzi baino gehiago taldeetan, bigarren ordezkari bat ere–. Interesdun guztiek izenpetu beharko dute idazki hori, eta Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkeztu beharko dute.

104. artikulua.- Udal taldea uztea.

Udal talde bateko kideen gehiengoak utzi egiten badu hauteskundeetan beren hautagai-zerrenda aurkeztu zuen formazio politikoa, edo hartatik botatzen badituzte, delako formazio politikoan geratzen diren Zinegotziak izango dira talde horretako legeko kideak, ondorio guztietarako. Nolanahi ere, dena delako hautagai-zerrenda aurkeztu zuen formazio politikoaren legeko ordezkariarengana jo ahal izango du Udalbatzako idazkari nagusiak, zirkunstantzia horiek egiaztatzen dituela jakinaraz dezan.

Bigarren atala. Baliabide materialak eta pertsonalak.

105. artikulua.- Borondatezko izatea

Beren zereginak egiteko aukera emango dieten baliabide material eta pertsonalak emango zaizkie taldeei. Taldeen eledunek uko egin ahal izango diete esleitzen zaizkien baliabideei – guztiei nahiz parte bati– Udalbatzaren Idazkaritzan idazki bat aurkeztuz.

106. artikulua.- Udal taldeei diru-kopuruak esleitzea.

106.1. Diru-kopuru bat esleituko zaio udal talde bakoitzari urteko aurrekontuetatik, zeinek osagai finko bat izango baitu, talde guztientzat berdina izango dena –hain zuzen ere guztientzat finkatutako hileko diru-kopuru aldagarrien batuketaren ehuneko 5ekoa–, eta beste osagai aldagarri bat, talde bakoitzaren kide kopuruaren arabera.

106.2. Udal talde bakoitzak hileko ordain aldagarri bat jasoko du, Zinegotzi bakoitzeko 1.500 euro –urtero eguneratuko da, KPIaren arabera–. Inolaz ere ezingo dira baliatu Udaltzaren zerbitzura dagoen edozein motatako langileen ordainsariak ordaintzeko, ezta ondare izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak erosteko ere.

106.3. Taldeei esleitutako diru-kopuruaren osagai aldagarria hileroko ordainduko da. Osagai finkoa, berriz, data berberetan ordaindu ahal izango da, edo, aukeran, baldin eta taldeek hala eskatzen badute –eledunak izenpetutako idazkia aurkezten dutelarik Udaltzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan–, urtean bi ordainketa aurreratu eginez, hau da, 6 hilean behin.

106.4. Talde politikoek izendatutako pertsonak, Zinegotzi ez badira, udal sozietateen administrazio kontseiluetara nahiz erakunde autonomoen zuzendaritza kontseiluetara joaten diren aldi bakoitzeko 300 euroko dieta jasotzeko eskubidea izango dute –urtero eguneratuko da kopuru hori KPI aintzat hartuta.

107. artikulua.- Kontabilitatea.

Esleitzen zaien diru-kopuruaren berriazko kontabilitatea eraman beharko dute taldeek, eta Udaltzaren esku jarri beharko dute hark hala eskatzen dien guztietan.

108. artikulua.- Zorrek direla-eta erantzun beharra.

Taldeek berek nahiz bertako kideen alderdi politikoek Udalarekin dituzten zorrek kitatzeko baliatu ahal izango dira udal taldeei esleitutako diru-kopuruak baldin eta zor horien ordainketa bide betearazlean galdatzen bazaie.

109. artikulua.- Udal taldeen bulegoak.

Talde bakoitzak lokal egokia izango du, eta behar duen bulego-materiala. Orobat baliatu ahal izango dituzte talde politikoek udal aretoak, behar den koordinazio funtzionala aintzat hartzen delarik.

110. artikulua.- Langileak.

110.1. Libreki hautatutako aldi bateko langileak eduki ahal izango dituzte udal taldeek –eledunek egingo dute horiek izendatzeko proposamena, eta udal aurrekontuetatik ordainduko zaie–, konfiantzazko zereginak eta aholkularitza-lanak egiteko. Ez langile horiek, ezta Alkatearen eta Alkateordeen menpeko aldi bateko langileek ere, ez dute inolako aginpiderik izango udal administrazioan, ezta hitz egiteko edo botoa emateko eskubiderik ere inongo udal organotan.

110.2. Talde guztiek eduki ahal izango dute pertsona bat goi teknikarien ordainsari-mailarekin. 6 Zinegotzi edo gehiagoko taldeek, gainera, beste bi pertsona eduki ahal izango dituzte ordainsari-maila berarekin.

110.3. 2 Zinegotzi edo gehiagoko talde guztiek eduki ahal izango dute pertsona bat administrari-laguntzaileen ordainsari-mailarekin, eta 6 Zinegotzi edo gehiagoko taldeek, gainera, beste pertsona bat gehiago ordainsari-maila berarekin.

110.4. 6 Zinegotzi edo gehiagoko taldeen eledunek beste pertsona bat eduki ahal izango dute udal taldearen eledunaren kabineteko buru gisa, C arloko buruen edo horien pareko funtzionarioen ordainsari-maila berarekin.

10. KAPITULUA. TALDE BATI ATXIKI GABEKO ZINEGOTZIAK

111. artikulua.- Talde bati atxiki gabeko Zinegotziak.

111.1. Hautatuak izan zireneko hauteskunde-formazioak eratzten duen udal taldean sartzen ez diren edo beren jatorrizko taldea uzten duten Zinegotziak talde bati atxiki gabeko Zinegotziak dira. Kasu horretan, beren eskubide ekonomiko eta politikoak ezingo dira izan jatorrizko taldean geratu izan balira izango lituzketenak baino handiagoak.

111.2. Inolaz ere ez dute izango taldeen diru-esleipen finko nahiz aldagarririk, ezta libreki izendatutako langilerik ere.

111.3. Hauteskundeetara koalizioan aurkezten diren alderdiek talde bereziak eratu ahal izango dituzten, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 73-3. artikulua eta araudi honetako 102. artikulua ildotik.

IV. TITULUA. UDALBATZAKO ELEDUNEN BATZARRA

1. KAPITULUA. IZAERA, OSAERA ETA ZEREGINAK

112. artikulua.- Izaera.

Alkatearen kontsulta-organoa da Eledunen Batzarra, zeinek erakundearen antolakuntzaren alorrean hari laguntzea baitu zeregin orokortzat; orobat lagunduko dio udal taldeen arteko nahiz horien eta Alkatearen beraren arteko harremanei dagozkienetan, hark kontsulta eginez gero.

113. artikulua.- Osaera.

Alkateak, Udalbatzako Lehendakariak –baldin badago– eta udal taldeak ordezkatzten dituzten eledunek edo horien ordezkoek osatuko dute.

114. artikulua.- Zereginak.

Zeregin hauek izango ditu:

1. Alkateari aholku eman eta laguntzea, hark hala eskatzen dionean.
2. Erakundearen jardueran parte hartzea; hain zuzen ere, entzun egin beharko zaio, beti ere, ondorengo gaien inguruko erabakiak hartu edo tramitatu aurretik:
 - a) Udal araudi organikoaren interpretazioa.
 - b) Udalbatzaren aparteko eta premiazko bilkuretarako deialdia egitearen egokitasuna –egoerak aukera ematen badu.
 - c) TJOALaren 21.1.j. artikuluan adierazitako aparteko neurriak hartzea –egoerak aukera ematen badu.
 - d) Udal arau organikoak aldatzea.
 - e) Udala ordezkatzten duten ikurrak nahiz Udala identifikatzen duten elementuak aldatzea.
 - f) Udalerria mugatzea edo mugak aldatzea.
 - g) Ohore eta Gorazarreen Araudia onetsi eta hori aldatu nahiz moldatzea.
 - h) Udalbatzari dagozkion gorazarre-egiteak.
 - i) Kudeaketa organo bereziak, erakunde autonomo lokalak nahiz udal sozietateak sortu, aldatu nahiz bertan behera uztea.

- j) Batzorde bereziak sortzea.
 - k) Udala kide deneko elkarte-erakundeak sortu, aldatu nahiz deuseztatzea.
 - l) Udal taldeetako kideei eserlekuak esleitzea Udalbatzaren aretoan.
 - ll) Udalaren ordezkariak izendatzea.
 - m) Udal talde bakoitzak batzordeetan izango dituen kideen kopurua finkatzea, baita horietako kideak eta Lehendakaria nahiz Lehendakariordea izendatzea ere, eta Udalbatzari batzorde iraunkorrak sortzeko proposatzea.
3. Aurkeztutako mozioak Udalbatzaren gai zerrendan sartu ala ez sartzeko proposatzea Alkateari. Orobat eman ahal izango du mozio horien gaineko bere jarrera.
Aurkeztutako mozio jakin bat gai zerrendan ez sartzea erabakitzen bada, batzarrean bertan aztertu ahal izango dute eledunek, eta aldeko edo kontrako jarrera azaldu; gehiengoz onesten bada, Eledunen Batzarrearen erakunde-adierazpen bihurtuko da.
 4. Zinegotziek Udalbatzan aztertzeko aurkeztu dituzten idazkiak eta agiriak sailkatzeko orduan aholku ematea Udalbatzako Lehendakariari.
 5. Udalbatzaren gai zerrenda egitea, Lehendakariarekin batera, eta eztabaida ordenatzea, talde bakoitzeko gehienezko ekimen-kopuruari eta mintzaldien iraupenari dagokienez.
 6. Udalbatzaren erabakiak betetzen diren kontrolatu eta jarraipena egitea, mozioei eta interpelazioetan hartutako konpromisoei dagokienez.
 7. Batzordeen eta Udalbatzaren jardueren egutegia finkatzea, bilkura-aldi bakoitzerako.
 8. Araudi organikoak nahiz beste edozein udal araudik leporatzen dion beste edozein.

115. artikulua.- Lehendakaria eta Idazkaria.

Udalbatzako lehendakaria izango da Eledunen Batzarreko Lehendakari, eta idazkari, berriz, Udalbatzako Idazkari Nagusia edo hark ordezkari izendatzen duen udal administrazioko funtzionarioa, zeinek jasoko baitu akta.

2. KAPITULUA. BILKUREN ERREGIMENA

116. artikulua.- Deialdia egiteko ekimena.

Alkatearen beraren, Udalbatzako Lehendakariaren nahiz guztira gutxienez 9 Zinegotzi biltzen dituzten 2 talde edo gehiagoren eledunen ekimena dela medio bilduko da, beti ere.

117. artikulua.- Maiztasuna.

Oro har, Udalbatzak bilkura egin baino 3 lanegun lehenago bilduko da Eledunen Batzarra.

118. artikulua.- Deialdia.

Batzarreko Lehendakariak egingo ditu deialdiak, eta gutxienez bilkura baino 48 ordu lehenago eman beharko dira jakitera, salbu eta premiazko direnean. Deialdiarekin batera gai-zerrenda igorriko da, baita aztertu beharreko gaien edukia edo erreferentzia eta aurreko bilkuraren akta ere.

119. artikulua.- Asistentzia-quoruma.

Eledunen Batzarra balio osoz eratutzat joko da baldin eta kideen erdia eta bat gehiago (Alkateaz, Udalbatzako Lehendakariaz –halakorik badago– eta Udalbatzako Idazkari Nagusiaz

gain) bertan badira eta, aldi berean, beren boto ponderatuekin, gutxienez Udalbatzako kideen legezko kopuruaren erdia ordezkatzeko badute. Bilkura osoan eutsi beharko zaio quorum horri.

120. artikulua.- Gehiengoak.

120.1. Botoen gehiengo absolutuz hartuko ditu erabakiak Batzarrak, eledun bakoitzak bere taldeak duen Zinegotzi-kopuruari dagokion boto ponderatua baliatzen duelarik. Alkateak, edo Lehendakariak, kasuan kasu, kalitateko botoa izango du.

120.2. Gehiengo absoluturik ez badago, Eledunen Batzarra proposamenaren alde ez dagoela esan nahiko du.

121. artikulua.- Lehendakariaren zereginak.

Lehendakariak zuzendu eta ordenatuko du Eledunen Batzarra, Udalbatzako eztabaidak arautzen dituzten printzipio orokorreien men eginez, baina administrazioa erraztu, arindu eta eraginkor bihurtu beharri erantzunez.

V. TITULUA. UDALBATZAREN BATZORDEAK

1. KAPITULUA. BATZORDE IRAUNKORRAK

Lehen atala. Eratzea eta zereginak.

122. artikulua.- Batzorde iraunkorrak.

122.1. Udalbatzaren erabakiz –Eledunen Batzarrak proposatuta– eratzeko direnak izango dira Udalbatzaren batzorde iraunkorrak, zeinek zeregin hauek izango baitituzte:

- Udalbatzaren erabaki beharreko gaiak aztertu, irizpena eman eta kontsulta egitea.
- Alkatearen eta udal gobernuko gainerako organoen jarraipena egitea, Udalbatzari dagokion goragoko kontrol eta fiskalizazio lana gorabehera.
- Udalbatzak ordezkotza emana dielarik, ebatzi beharrekoak ebaztea.

122.2. Udalbatzaren erabakia dela medio zehaztuko da zenbat izango diren eta nola deituko diren, udal antolakuntzaren gainean hartzen diren erabakien ildotik, eta osatzen, berriz, talde bakoitzak duen ordezkarien-maila aintzat harturik. Orobat erabakiko du Udalbatzak zenbatean behin egingo dituzten ohiko bilkurak.

122 bis artikulua.- Langileekin lotutako gaien buruzko batzordearen aurreko lan taldea.

122 bis.1. Udal langileekin lotutako gaiak aztertzen dituen batzordearen saioak egin aurretik, udal talde politikoen eta ordezkariak duten sindikatuen ordezkariak lan talde batean bilduko dira, zeinean sindikatuek ere izango baitute hitza.

122 bis.2. Lan talde horren eztabaidak eta ondorioak ez dira erabakitzaileak izango, baina dagokion batzordeari horien berri emango zaio, bertan azter daitezela.

123. artikulua.- Eskumenen banaketa.

Gobernu organoen arteko eskumen-banaketa bermatu egin beharko du Udalbatza eta haren batzordeak kontrolatu eta fiskalizatzeko eskumenak baliatzeko aukera, gai jakin bakoitza batzorde jakin bati atxikitzen zaiolarik; hain zuzen ere, Udalbatzak erabakiko du gai bakoitza zein batzorderi atxiki, Eledunen Batzarrari entzun ondoren.

Bigarren atala. Bilkuren erregimena.

124. artikulua.- Udalbatzaren batzordeen izaera publikoa.

Herritarrak Udaleko jardueri buruz hobeto informaturik egon daitezen, Udalbatzaren batzordeen bilkurak irekiak izango dira.

125. artikulua.- Egitura.

1.1. Batzordeen gai-zerrendek 3 zati nagusi izan beharko dituzte:

- 1.- EBATZI BEHARREKOAK.
- 2.- EZTABAIDATZEKOAK.
- 3.- KONTROL-JARDUERA.

1.2. Kontrol jarduerak talde politikoen eta herritarren ekimenak hartuko ditu bere baitan.

Hirugarren atala. Osaera.

126. artikulua.- Organoko kideak.

Hauek osatuko dituzte Udalbatzaren batzorde iraunkorrak: Lehendakari eta Lehendakariorde banak –batzordekideek berek beren artetik hautatu eta Udalbatzako Lehendakariak izendatuak–, udal talde guztien batzordekideek –Udalbatzak erabakiko du kopurua, kasuan kasu, talde bakoitzak Udalbatzan duen ordezkariaren arabera– eta Udalbatzako Idazkariak edo hark ordezeko izendatzen duen Idazkaritza Nagusiko funtzionarioak.

127. artikulua.- Lehendakariaren zereginak.

Hauek izango dira batzordeetako lehendakarien zereginak: bilkura bakoitzeko gai-zerrenda finkatu eta deialdia egitea, eztabaidak zuzendu eta bideratzea, eta indarrean dagoen legediak nahiz araudi honek leporatzen dien beste edozein. Lehendakaria bertan ez badago, Lehendakariordeak bereganatuko ditu zeregin horiek.

Egokitzat jotzen duelarik, batzordeko taldeen Eledunen Batzarraren aholkularitza eskatu ahal izango du.

128. artikulua.- Zinegotziak batzordeetara atxikitzea.

128.1. Udalbatzaren batzorde iraunkorrak zenbat izango diren, nola deituko diren eta nola osatuko diren erabaki ondoren, udal taldea ordezkatzeko duten Zinegotziak –titular nahiz ordezeko– horietara atxikitzeko eskaria egin beharko dute horien eledunek; horretarako, idazki bat aurkeztu beharko dute Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan, 10 eguneko epean.

128.2. Baldin eta batzorde bati titular gisa atxikita dagoen Zinegotziren batek bilera batera joaterik ez badu, eta batzordeburuari aldeztu aurretik jakinarazten badio, haren taldeko edozein kidek ordeztu ahalko du, dena delako batzordeko kide ez izan arren, titularraren ordezekoak izendatu beharrik gabe.

Laugarren atala. Bilkuren erregimena eta deialdia.

129. artikulua.- Bilkura motak.

Udalbatzaren batzorde iraunkorren bilkurak ohikoak nahiz apartekoak izan ahalko dira.

130. artikulua.- Ohiko bilkurak.

130.1. Udalbatzaren organoen bilkuren egutegian –Eledunen Batzarrak onetsiko du hori– adierazten diren egun eta orduetan egiten direnak izango dira ohiko bilkurak, hots, maiztasun jakinarekin aldiaren behin egiten direnak. Bilkura eguna baino 4 lanegun lehenago egingo da horietarako deialdia.

130.2. Ohiko bilkura jarritako egunean egitea galarazten duen ustekabeko edo salbuespenezko zirkunstantziarik egokitzuz gero, egutegia aldatzeko proposatu ahalko dio batzordeko Lehendakariak Eledunen Batzarrari, behar diren arrazoiak azalduz eta eledunei entzun ondoren. Udalbatzaren Idazkari Nagusiari zuzendutako idazki baten bitartez egingo du hori, eta hark jakinaraziko die taldeen eledunei. Eledunen Batzarra kontra agertzen delarik salbu, eraginkor izango da aldakuntza hori.

130.3. Udalbatzaren batzordeen baterako bilkuretarako deialdia egin ahalko da, batzorde horietako Lehendakariak aho batez proposatuz gero.

Alkatea edo ordezkari izendatzen duen Zinegotzia izango da Lehendakari baterako bilkura horietan.

131. artikulua.- Aparteko bilkurak.

131.1. Lehendakariak hala erabakitzen duenean edo gutxienez ere kideen legezko kopuruaren heren batek eskatzen duenean egingo dira aparteko bilkurak, edo boto eskubidea duten herritarren ehuneko baten sinaduren eta Udalbatzako sei Zinegotziren abala duten ekimenen bidez. Gehienez hiru laneguneko epean erantzun beharko dio Lehendakariak eskariari, edo, arrazoiak biltzen dituen ebazpena dela medio, bilkura ukatu. Eskariak bere baitan hartzen dituen gaiak ezingo dira sartu ohiko bilkura baten gai-zerrendan, ezta gai gehiago dituen aparteko beste batean ere, salbu eta eskaria egiten dutenek berariaz ematen dutelarik baimena.

131.2. Aparteko bilkuretarako ere, oro har, bilkura eguna baino 4 lanegun lehenago egingo da deialdia. Hala ere, eztabaidatu beharreko gaiak premiazkoak direnean, epe hori errespetatu gabe ere egin ahal izango du deialdia Lehendakariak, erabaki hori behar bezala arrazoitzen duelarik.

132. artikulua.- Asistentzia-quoruma.

132.1. Udalbatzaren batzordeen bilkurak lehenengo deialdian egin ahal izango dira beren legezko kideen heren bat hasteko jarritako ordurako bertaraten bada –betiere Eledunen Batzarrak ezarritako malgutasunaren barruan–, eta lehendakaria eta idazkaria edo horiek legez ordezkatzeko dituztenak bertan baldin badira. Hala izan ezean, bigarren deialdian egingo dira, ordubete geroago, baldin eta gutxienez batzordeko hiru kide bertan badira. Batzordea balio osoz eratzeko aukera eman duen asistentzia-quorumari bilkura osoan eutsi beharko zaio.

132.2. Bilkura bigarren deialdian egiteko lehenengo bilkura egiteko jarritako baldintza berak bete beharko dira, eta, betetzen ez badira, bertan behera utziko da, besterik gabe.

Bosgarren atala. Bilkuren gai-zerrendak.

Lehen zatia. Egitura.

133. artikulua.- Ohiko bilkurak.

- Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onestea, idatzi delarik eta aldeztu aurretik batzordeko kideak jakinaren gainean jarri direlarik.

- *Herritarren txanda, loturarik gabea.*

- Ebatzi beharrekoak

- Irizpenak onestea.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan.*
- Herritarrek parte hartzearen baitako gaiak.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan.*
- Udalbatzaren ordezkotza eginez erabakiak hartzea.

- Eztabaidatzekoak

- Udal zerbitzuen funtzionamenduari buruzko informazioa.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan.*
- Talde politikoaren proposamenak udal zerbitzuen funtzionamenduari buruz.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan.*

- Kontrol jarduera

- Udal gobernuko organoen agerraldiak.
- Udalarekin lotutako enpresa, sozietate, erakunde eta elkarten agerraldiak.
- Eskeak.
- Galdeak.

134. artikulua.- Aparteko bilkurak.

- Herritarren txanda, loturarik gabea.

▪ Ebatzi beharrekoak:

- Irizpenak onestea.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan.*
- Herritarrek parte hartzearen baitako gaiak.
 - *Herritarren txanda, horien inguruan.*
- Udalbatzaren ordezkotza eginez erabakiak hartzea.

▪ Kontrol jarduera:

- Udal gobernuko organoen agerraldiak.
- Eskeak.
- Galdeak.

135. artikulua.- Aparteko kontrol bilkurak.

- Kontrol jarduera:

- Udal gobernuko organoren bat gaitzestea.

136. artikulua.- Aparteko eta premiazko kontrol bilkurak

- Deialdiaren premia dagoen erabakitzea, arrazoiak azaldu ondoren.
- Ebatzi beharrekoak:
 - Irizpenak onestea.
 - Udalbatzaren ordezkotza eginez erabakiak hartzea.
- Kontrol jarduera:
 - Udal gobernuko organoen agerraldiak.

Bigarren zatia. Agiriak aurkeztea eta epeak kontatzea.

137. artikulua.- Arau orokorrak.

137.1. Batzordea jakinaren gainean jartzeko eta haren bilkuran eztabaidatzeko diren agiriak, baita bilkuretan parte-hartzeko eskabideak ere, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan

aurkeztu beharko dira, beti ere araudi honetan, nolako agiriak diren, finkatzen diren epeak betetzen direlarik. Nolanahi ere, izenpetzen dituztenen identifikazio pertsonala eduki beharko dute beren baitan, eta, Alkateak, Zinegotziek edo udal taldeek aurkeztuak ez badira, telefono edo helbide elektroniko bat adierazi beharko da bertan, harremanetarako.

137.2. Bilkura deialdiarekin batera helaraziko zaizkie agiri horiek batzordeko kideei idazkaritzatik, nahiz eta lehenagotik ere eman ahal izango zaien horien berri agerraldi, gaitzespen, eske eta galdeen hartzaile direnei.

138. artikulua.- Eztabaidatzeko gaiak.

Eztabaidatzeko diren gaiak dagokien dokumentazioa dena delako bilkurarako deialdia egiten den eguneko 12:00ak baino lehenago aurkeztu beharko da Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan.

139. artikulua.- Udal gobernuko organoren baten agerraldia eskatzea.

Udal gobernuko organoren bat batzordera agertzeko eskabideak bilkura baino gutxienez 7 egun natural lehenago erregistratu beharko dira. Premiazkotzat jotzen diren agerraldiek batzordearen aparteko eta premiazko bilkura egitea ekarriko dute berekin –berriazko araudiak arautuko du hori.

139 bis artikulua.- Udalarekin lotutako enpresa, sozietate, erakunde eta elkarteen agerraldiak eskatzea.

139 bis.1. Aurreko artikuluan adierazitako bide beretik eskatu ahal da Gasteizko Udalarekin kontratu edo hitzarmen bidezko harremana duten edo hark diruz laguntzen dituen enpresa, sozietate, erakunde eta elkarteen agerraldia; eskabide orrian zehaztuko da zeri buruz galde egin nahi zaien eta horiei buruz baino ez diote informaziorik emango batzordeari.

139 bis.2. Aipatutako enpresa, sozietate, erakunde eta elkarteek beren kabuz ere eska dezakete batzordean agertzea, ordezkarien bitartez.

140. artikulua.- Eskeak.

Eskeak ahoz nahiz idatziz egin ahal izango dira, eta, oro har, egin edo erregistratu ondoren egokitzen den lehenengo bilkuran eztabaidatuko dira, nahiz eta egiten diren bilkuran bertan ere eztabaidatu ahal izango diren, Lehendakariak hala erabakiz gero.

Batzordean eztabaidatzeko idatziz aurkezten diren eskeak bilkura baino gutxienez 5 lanegun lehenago erregistratu beharko dira.

141. artikulua.- Galdeak.

Batzordean erantzun daitezkeen idatziz egiten diren galdeak bilkura baino gutxienez 5 lanegun lehenago erregistratu beharko dira; hala ere, hurrengo bilkura arte atzeratu ahal izango du erantzuna horien hartzaileak, horretarako arrazoiak agertzen dituelarik. Bilkuran bertan ere egin ahal izango dira galdeak, ahoz. Halakoetan, oro har, hurrengo bilkuran erantzungo ditu hartzaileak, nahiz eta, egoki baderitzo, momentuan bertan ere erantzun ahal izango dituen.

142. artikulua.- Dosierrak.

Udalbatzak ordezkotza emana diola-eta batzordeak hartu beharreko erabakiei dagozkien dossier osoak, baita Udalbatzari igortzeko irizpena eman beharrekoak diren erabaki-proposamenei dagozkienak ere, bilkura baino gutxienez bost lanegun lehenago eman beharko dituzte sail edo zerbitzuek, aukera izan dadin horiek batzordeko kideen eskura jartzeko, bilkurarako deialdiaren

eta gai-zerrendaren berri ematen zaien unetik bertatik. Epe hori sei lanegunez luzatu ahalko da antolakuntza-arrazoiak direla medio, Eledunen Batzarrak hala erabakiz gero.

Ohiko bilkuretan, gai-zerrendan sartu ez diren gaiak eztabaidatu eta bozkatzeko proposamena egin ahal izango dio Lehendakariak batzordeari, gai horiek premiazkoak baldin badira; batzordeko gehiengoak alde agertzen bada, onartu egingo da hala egitea.

Bosgarren bis atala. Herritarren txanda Udaltzaren batzordeetan.

143. artikulua.- Herritarren txanda.

143.1. Dagozkien erregistro ofizialetan izena emana duten herritar erakundeek Udaltzaren batzordeetan parte hartu ahal izango dute, ez bilkuraren gai-zerrendako gaitan bakarrik, baizik eta baita beren intereseko beste edozein gairen gainean ere.

143.2. Herritarren txandan parte hartzeko eskabideak, herritarren ekimenak eta herri ekimenak bilkura baino gutxienez bost lanegun lehenago erregistratu beharko dira.

143.3. Izenpetzen dituztenen identifikazio pertsonala jaso beharko dute beti ere, baita harremanetarako telefono edo helbide elektronikoko bat ere. Orobat adierazi beharko da Udaltzaren bilkuran hitz egingo dutenen identifikazioa, zeinek baimena eman beharko dioten herritarren txandan adierazi diren iritziak ea irudiak grabatu eta hedatzeari.

143.4. Bilkura horretan, herritar erakundearen ordezkariak hitz egin ondoren, udal taldeen eledunek argibideak eskatu ahal izango dituzte.

Bosgarren Ter atala: Vitoria-Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluaren agerraldia

143 bis artikulua. Herritarren partaidetzarako udal organoak eta Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseilua batzordeetara agertzea

Herritarren partaidetzarako udal organoek eta Gasteizko Udalerriko Gizarte Kontseiluak Udaltzaren edozein batzordeetara agertu ahal izango dute, dela berak eskatuta, dela udal talde politikoren batek eskatuta, araudi honen bigarren ataleko 1. kapituluko XIII. tituluaren gobernu-organoei dagokienez finkatutako modu berean, beren zereginen eta funtzionamenduaren inguruko gaiez jarduteko. Horretarako, batzordeburuari egin beharko zaio eskabidea, dena delako bilkurako gai-zerrendan sar dezan gai hori, eztabaida- eta kontrol-atalean.

Seigarren atala. Bozketak.

Lehen zatia. Bozkatuko den testua finkatzea.

144. artikulua.- Bozkatuko den testua finkatzea, izaera betearazlea duten gaitan.

144.1. Izaera betearazlea duten erabakiak hartzeko edozein proposamena buruzko irizpena edo Udaltzaren ordezkotza eginez erabakiak hartzeko proposamen bat bozkatu aurretik, dena delako proposamenaren testua finkatuko du Lehendakariak; hain zuzen ere, bat etorriko da hori bilkurako dosierretan jasotako idazkuntzarekin, edo, halakorik gertatuz gero, alde aurretik transakzio adostuaren bidez nahiz bozketa bereiziaren bidez onetsitako zuzenketen ondorio diren aldakuntzak txertatu ondoren geratzen denarekin. Oso-osorik idatziz jarri ondoren baino ez dira bozkatuko proposamenak, hitzez hitz jaso ahal izan daitezen hartara bilkuraren aktan.

144.2. Batzordeak irizpena eman ondoren, horrekin bat etorri ez eta aldatu egin nahi duten kideek beren boto partikularrak sartu ahal izango dituzte dosierrean, Udaltzaren Idazkaritza

Nagusiaren Erregistroan jasota utziko den idazkiaren bitartez, eta idazki horrek irizpenarekin batera joan beharko du, hura onetsi ondoren lanegun egokitzen den lehen egunetik.

145. artikulua.- Bozkatuko den testua finkatzea, kontrol jardueraren baitako gaietan.

Kontrol jardueraren baitako gaien inguruko erabakiak hartzeko, proposamena egin duen taldearekin adostuko du Lehendakariak bozkatuko den ebazpenaren idazkuntza.

Bigarren zatia. Bozketaren nondik norakoak.

146. artikulua.- Bozketaren nondik norakoak.

Behin hasiz gero ezingo da bozketa eten, eta Lehendakariak ez dio batzordeko inongo kideri hitza emango. Halaber, bozketak dirauen bitartean ezingo dute aretotik alde egin bertan direnek, eta kanpoan direnei ez zaie sartzten utziko.

Hirugarren zatia. Gehiengoak.

147. artikulua.- Gehiengoak.

147.1. Oro har, gehiengo soilez onetsiko dira gaiak, hau da, aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean. Berdinketa gertatuz gero, berriro bozkatu ahal izango da, eta bigarren ez ere berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

147.2. TJOALaren 123.1. artikuluko c), e), f), j) eta o) paragrafoetan adierazitako erabakiak nahiz hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako planeamendu orokorreko instrumentuen tramitazioan Udalbatzak hartu beharrekoak onesteko gehiengo absolutua beharko da, hau da, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren erdia baino gehiago izan beharko dute aldeko botoek. Gehiengo bera beharko da batzordean irizpena emateko.

148. artikulua.- Legez abstentziotzat jo beharrekoak.

Udalbatzaren batzordearen bilkurara etorri badira ere bozketa egiten den unean beren aukietan ez dauden Zinegotzien botoak abstentzio gisa zenbatuko dira.

Zazpigarren atala. Bilkuren aktak.

149. artikulua.- Aktak egitea.

149.1. Udalbatzaren batzordeen bilkura ororen akta idatzia egingo da, zeinean xehetasun hauek jaso beharko baitira: bilkuraren lekua, eguna eta ordutegia, Lehendakaria eta idazkaria bertan zirela, bertan izandakoen zerrenda –behar adina izan beharko dute–, Herritarren txanda balego, baita hitz egin dutenen zerrenda, bilkuraren izaera eta lehen deialdian ala bigarrenen egiten den, landutako gaien adierazpena, egin diren bozketak eta horien emaitzak, hartutako erabaki edo irizpenen xedatze zatia eta aipatzekoak diren bestelako gorabeherak, halakorik baldin badago.

149.2. Akta horren osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatuko dira. Grabazioaren ondoriozko artxiboa aktari lagunduko dio, bilkuran zehar euskarri elektronikoko beste ezein agirirekin eta idazkari nagusiak haren osotasuna eta benekotasuna ziurtatzen duen egiaztagiriarekin batera, eta zinegotzi guztien eskura jarriko da.

149 bis artikulua. Bilkuren emankizuna eta grabazioen hedapena

Udalbatzaren batzordeen bilkurak zuzenean eman ahal izango dira, streaming bidez.

Grabatutako irudiak eta audioa editatu ahal izango dira, xede harturik erraztea grabazioaren ikusmena eta, ondorioz, baita bilkuran izandako mintzaldien eta hartutako erabakien jarraipena. Galarazi egingo da datu pertsonalen baimenik gabeko hedapena.

Artxibo editatuak eskuragarri izango dira Udalaren webgunean, gehienez ere hiru egun balioduneko epean.

150. artikulua.- Onestea.

Aktak, egin ondoren, batzordeak onetsi beharko ditu, eta hurrengo bilkuran aurkeztuko dira horretarako. Edukiari buruzko oharrik egiten bada, eztabaidatu eta behar diren zuzenketak erabakiko dira, baina ezingo dute, inolaz ere, hartutako erabakien funtsezko aldakuntzarik ekarri berekin, akats materialak edo gitezkoak zuzentzera mugatu beharko baitute.

Zortzigarren atala. Gai jakinak aztertzeko taldeak.

151. artikulua.- Gai jakinak aztertzeko taldeak.

Batzordeko Lehendakariak edo hark ordezeko izendatzen duen batzordeko Zinegotziak dena delako batzordearen eskumen arloko gai jakinak aztertzeko taldeak antolatu ahal izango ditu.

Gai jakinak aztertzeko talde horiek beren aurrekontu-partida izango dute, eta lana bideratzen lagun diezaiekeen edonor gonbidatu ahal izango dute. Lana bukatzen dutelarik txosten bat egin beharko dute.

2. KAPITULUA. BATZORDE BEREZIAK

152. artikulua.- Batzorde bereziak.

Udalbatzak –gai zehatzak aztertzeko– aldi baterako, hots, iraunarazteko asmorik gabe sortzen dituenak izango dira batzorde bereziak, baita legearen aginduz sortu beharrekoak direnak ere, hala nola Kontuen Batzorde Berezia eta Iradokizun eta Erreklamazioen Batzorde Berezia.

Lehen atala. Kontuen Batzorde Berezia.

153. artikulua.- Kontuen Batzorde Berezia.

Kontuen Batzorde Bereziaren osaera, antolakuntza eta funtzionamendua Udalbatzaren batzorde guztietarako finkatu diren xedapenek arautuko dituzte. TJOALak eta toki ogasunak eta horien kontabilitatea arautzen dituen araudiak berriaz aitortzen dizkionak izango dira bere zereginak.

Bigarren atala. Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia.

154. artikulua.- Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia.

Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren osaera, antolakuntza eta funtzionamendua Udalbatzaren batzorde guztietarako finkatu diren xedapenek arautuko dituzte. TJOALak berriaz aitortzen dizkionak izango dira bere zereginak, eta Herritarren Parte-hartzearen Udal Araudi Organikoan horri dagokionean xedatutakoa aplikatuko zaio.

Hirugarren atala. Bestelako batzorde bereziak.

155. artikulua.- Bestelako batzorde bereziak.

155.1. Gai jakin bat aztertu eta horren gaineko proposamenak egiteko Udalbatzaren erabakiz eratzen direnak izango dira, ebazpen izaerako zereginik gabekoak. Eratzeko erabakiak arautuko ditu –izena, xedea eta gehienezko indarraldia jaso beharko dira bertan, ezinbestean–. Osagarri gisa, batzorde iraunkorrak arautzen dituzten arauak aplikatuko zaizkie.

155.2. Batzordeek berek erabakitzen dutelarik geratuko dira bertan behera, edo, besterik gabe, sortzea ekarri zuten zereginak burutzen dituztenean edo finkatutako epea betetzen denean – epe hori luzatzea erabaki ahal izango du Udalbatzak, hala ere.

155.3. Ateratzen dituen ondorioak irizpen batean jasoko dira, eta Udalbatzan eztabaidatu eta bozkatu beharko da hori.

156. artikulua.- Ikerketa batzordeak.

156.1 Aurreko artikuluan adierazitakoa gorabehera, Alkatearen eta haren gobernu taldearen kudeaketaren jarraipena egitearen eta hura kontrolatzearen alorreko zereginik baino ez dituzte izango ikerketa batzordeak.

156.2 Batzordeak deitutako udal funtzionarioen eta bestelako pertsona fisiko nahiz juridikoen agerraldia borondatezkoa izango da.

156.3 Batzordeko Lehendakariak erabakiko du, taldeek bertan dituzten eledunei entzun ondoren, zein bilkura egingo diren ateak itxita, Konstituzioaren 18.1. artikuluan jasotako herritarren funtsezko eskubidea dela eta.

156.4 Batzordera agertuko direnen zerrenda, haiek adierazitakoak jasotzen dituzten aktak eta haiek identifikatzeko aukera emango luketen datuak ez zaizkio beste inori emango agerraldia ateak itxita egitea baimendu bada.

156.5 Ikerketa batzordeen ondorioak Udalbatzaren osoko bilkuran bozkatuko dira, eta udal gobernuak dena delako arloan egindako kudeaketa politikoa balioestera mugatuko dira.

3. KAPITULUA. UDALBATZAREN ESKUMENAK BATZORDEEN ESKU UZTEA

157. artikulua.- Eskumenak eskuordetzan ematea.

Eskumen hauek utzi ahal izango ditu Udalbatzak batzordeen esku:

- Udal ordenantza eta araudiak onetsi nahiz aldatzea.
- Zerbitzuak kudeatzeko moduak zehaztea, baita Udalaren eskumeneko zerbitzuen kudeaketarako erakunde autonomoak, enpresa- entitate publikoak eta merkataritza-elkarteak sortzeko erabakia hartzea ere, eta municipalizatzeko dosierrak onestea.
- Ekintza judizial eta administratiboak bideratzea, eta Udalbatzaren defentsa juridikoa, bere eskumeneko gaietan.
- Eskumen-liskarrak planteatzea beste erakunde lokal eta administrazio publikoen aurrean.

VI. TITULUA.- UDAL AURREKONTUAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

158. artikulua.- Tramitatzen hastea.

Gobernu Batzarrak onetsitako proiektua, tramitatutako dossier osoarekin batera, arlo horretan eskumena duen batzordean aurkezten denean joko da batzordean tramitatzen hasitakotzat Udalaren aurrekontu orokorra; horretarako, Alkateak edo hark ordezkotza izendatzen duen Zinegotziak agertu beharko du batzordera.

Udalerriko Gizarte Kontseiluaren arauzko irizpena jaso izan beharko du aurrekontu proiektu orokorrak. Halaber, hasierako onespena eman aurretik arrazoizko epe batean (hilabete), sektore kontseilu guztiei deituko zaie, aurrekontu orokorraren proiektuaren berri zuzenean jakin eta ekarpenak egiterik izan dezaten; horiek txosten batean jaso eta Udalerriko Gizarte Kontseiluari aurkeztuko dizkiote.

159. artikulua.- Egutegia.

Batzordeko Lehendakariak, beti ere administrazio prozedura erkidea eta aurrekontuen alorreko araudia errespetatzen dituelarik, tramitazio egutegi bat proposatu eta bozkaraziko du, eta egutegi horrek lehentasuna izango du Udalbatzaren eta batzordeen gainerako lanen aldean. Tramitazio hori errazteko, batzorde txostengile bat eratu ahal izango da.

160. artikulua.- Agerraldiak.

Behar diren bilkurak deituko dira, arloetako Zinegotzi ordezkariak ager daitezzen bertara. Beren ardurapeko sail eta zerbitzuetan proiektuak zer nolako eragina duen azaldu beharko dute horiek, eta batzordeko kideek eta herritarren txandan egiten dizkieten galderei erantzun. Gaia zein den, horri dagokion batzordearekin baterako bilkurak egin ahal izango dira.

Arazkoa izango da, bestalde, udal funtzio publikoaren alorrean eskumena duen batzordeak aurrekontuko plantilla proposamenari buruzko irizpena ematea; aurrekontuak taxutzeko prozeduraren baitan egingo da hori, Ogasun Batzordeak irizpena eman aurretik.

161. artikulua.- Ekarpenak eta zuzenketak.

161.1. Agerraldien txanda bukatutakoan, eskumena duten herritarren parte-hartze organoetan aurkeztuko da proiektua –arautzen dituen araudi organikoan xedatutakoari jarraiki–, berorien ekarpenak biltzeko.

Arazkoa izango da aurrekontuei hasierako onespena eman aurretik Aurrekontuen Entzunaldi Publikoa deitzea, eta bertan ahalik eta modurik ulergarrienean aurkeztea. Entzunaldi horren ondoren herritarrek nahiz herritar erakundek alegazioak eta iradokizunak aurkezteko epea zabalduko da.

161.2. Aurrekontu proiektuaren gaineko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte udal taldeek Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan, gutxienez 20 laneguneko epearen barruan.

161 bis artikulua.- Aurrekontu proiektuaren zuzenketak.

1. Aurrekontu proiektuaren zuzenketak idatziz aurkeztu beharko dira, Ogasun, Ondare eta Aurrekontu Sailak finkatzen duen ereduari baliatuz hartarako, eta honako hauek zuzentzera bideratuak izan ahalko dira: aurrekontua gauzatzeko oinarrien artikulua, gastu egoerak, diru-sarreraren egoerak edo, oro har, ekonomi edo finantza-munta duen aurrekontu proiektuaren baitako edozein agiri.

2. Aurrekontu proiektuaren gaineko zuzenketek gastu egoerak sortzea edo handitzea badakarte berekin, horiek finantzatzeko proposamena erantsi beharko zaie. Hain zuzen ere, beste gastu egoera batzuetan murrizketak egitea edo diru-sarreraren aurreikuspenetan gehikuntzak egitea proposatu beharko da.

3. Halaber, aurrekontu proiektuaren gaineko zuzenketek diru-sarreraren aurreikuspenak murriztea badakarte berekin, gastu egoerak murrizteko edo diru-sarreraren aurreikuspenen beste kontzeptu batean gehikuntza egiteko proposamena erantsi beharko zaie.

4. Nolanahi ere, diru-sarreraren aurreikuspenen aldakuntza proposatzen duten zuzenketak behar bezala arrazoituta egon beharko dute. Halaber, aurkeztu ondoren, eta eztabaidatu eta bozkatu aurretik, udal zerbitzu teknikoaren irizpena jaso beharko dute, beren ekonomi edukia justifikatze aldera.

162. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo soilez emango du batzordeak aurrekontuei hasierako onespina emateko proposamenaren gaineko irizpena, bere osotasunean agertzen duen haren aldeko nahiz kontrako jarrera, Gobernu Batzarrak onetsitako idazkuntza berarekin, edo, halakorik izan bada, alde aurretik onetsitako zuzenketen ondorio diren aldakuntzak jasotzen dituen testuaren aldekoa.

163. artikulua.- Alegazioak.

Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkezten bada, orobat eman beharko du irizpena batzordeak horiek onartu edo baztertzeko Gobernu Batzarrak egiten dion proposamena dela eta.

164. artikulua.- Aurrekontu aldaketak sartzea.

Udalbatzaren eskumeneko aurrekontu aldaketan sartzekotan, kreditu-transferentzia kasuetan izan ezik, 161. artikulutik 167. era bitartekoetan finkatutako prozedurari jarraiki jokatu beharko da, salbu eta zuzenketak aurkezteko jarritako epeari dagokienez, erdira murriztuko baita hori. Udalbatzaren eskumenekoak diren kreditu-transferentziak onesteko ez dira 161 eta 161.bis artikulua aplikatuko.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

165. artikulua.- Hasierako onespina.

Irizpena jaso duen aurrekontuari hasierako onespina eman beharko zaio, eta, behin hori lorturik, jendaurrean jarri beharko da 15 lanegunez edo toki ogasunen araudian finkatzen den epean. Gobernu Batzarra erakustaldi horren jakinaren gainean jarri beharko da.

166. artikulua.- Alegazioak ebaztea.

Alegaziorik aurkezten bada, beharrezko diren txostenak eskatuko ditu Gobernu Batzarrak horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo du. Alegazioak onartzeko proposamenak funtsezko aldakuntzak badakarzkio hasierako proiektuari, hura onetsi aurreko fasera itzuli beharko da dosierra. Alegazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udalbatzan, hori ebatzi eta aurrekontuak behin betiko onestearen inguruko erabakia har dezan –alde aurretik arazko irizpena eman beharko du eskumena duen Udalbatzaren batzordeak–. Gehiengo soilez hartuko da erabakia.

167. artikulua.- Behin betiko onespena.

Alegaziorik erregistratu ez bada, behin betikotzat joko da aurrekontua onesteko erabakia, ordura arte behin-behinekoa zena.

VII. TITULUA.- ARAUDIAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOA EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

168. artikulua.- Tramitatzen hastea.

Zinegotziren batek, udal talde batek nahiz zenbaitek, edo guztiek batera, araudi organiko berria egin edo dagoena aldatzeko premia justifikatzen duten arrazoiak azaltzen dituen eta Udaltzanean aurkeztu nahi den testu artikulatua biltzen duen proposizioa aurkezten dutelarik joko da batzordean tramitatzen hasitakotzat Udaltzaren araudi organikoa.

169. artikulua.- Egutegia.

Batzordeko Lehendakariak tramitazio egutegi bat proposatu eta bozkaraziko du, beti ere administrazio prozedura erkidearen araudia errespetatzen duelarik. Tramitazio hori errazteko, batzorde txostengile bat eratu ahal izango da.

170. artikulua.- Txostenak.

Proposizioak ez badakartza berekin arauzko diren txostenak, epe egokia aurreikusiko da egutegian horiek egin ahal izateko, zeinek ez baitu 10 lanegunetik beherakoa izan beharko. Bestelako txostenik egiteko ere jarri ahal izango da eperik.

171. artikulua.- Zuzenketak.

Tramitatzen ari den Udaltzaren araudi organikoaren proposizioaren gaineko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte izenpetu ez duten udal taldeek Udaltzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan, gutxienez 20 laneguneko epean. Zuzenketek funtsezko aldakuntzak biltzen badituzte beren baitan, arauzko txostenak zabaldu egin beharko dira, horiek beren baitan hartzeko.

172. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo absolutuz emango du batzordeak araudi organikoari hasierako onespena emateko proposamenaren gaineko irizpena, bere osotasunean agertzen duelarik haren aldeko nahiz kontrako jarrera, edo, halakorik izan bada, alde aurretik onetsitako zuzenketen ondorio diren aldakuntzak jasotzen dituen testuaren aldekoa.

173. artikulua.- Erreklamazioak.

Jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten bada, orobat eman beharko du irizpena batzordeak tramitatzen ari den proposizioaren egileak edo egileek horiek onartu edo baztertzeko egiten dioten proposamena dela eta –arauzko txostenak erantsi beharko zaizkio horri.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

174. artikulua.- Hasierako onespena.

Irizpena jaso duen araudi organikoa Udalbatzan aurkeztuko da hasierako onespena eman diezaion, eta, behin hori gehiengo absolutuz lorturik, jendaurrean jarriko da gutxienez 30 lanegunez edo toki ogasunen araudian finkatzen den epean, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin Gasteizko Udaleko Erregistro Nagusian.

175. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea.

175.1. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten bada, proposizioaren egile den taldeak edo taldeek horiek onartu edo baztertzeko proposamena egin beharko dute, arauzko txostenak aintzat harturik.

175.2. Erreklamazio edo iradokizunak onartzeko proposamenak funtsezko aldakuntzak badakarzkio hasierako proiektuari, hura onetsi aurreko fasera itzuli beharko da dosierra. Erreklamazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udalbatzan, hori ebatzi eta araudia behin betiko onestearen inguruko erabakia har dezan –aldeztatik arauzko irizpena eman beharko du eskumena duen Udalbatzaren batzordeak–. Gehiengo absolutuz hartuko da erabakia.

176. artikulua.- Behin betiko onespena.

Erreklamazio edo iradokizunik erregistratu ez bada, behin betikotzat joko da araudia onesteko erabakia, ordura arte behin-behinekoa zena.

2. KAPITULUA. BESTELAKO ARAUDI ORGANIKOAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

177. artikulua.- Tramitatzen hastea.

177.1. Gobernu Batzarrak onetsitako proiektua, tramitatutako dossier osoarekin batera, arlo horretan eskumena duen batzordean aurkezten denean joko da batzordean tramitatzen hasitakotzat edozein araudi organiko, salbu eta Udalbatzak bere burua antolatzeari dagokiona; horretarako, Alkateak edo hark ordeztuko izendatzen duen Zinegotziak agertu beharko du batzordera.

177.2. Orobat hasi ahalko da tramitatzen proposizio bat aurkezten delarik batzordearen aurrean, Zinegotziren batek edo udal talde batek nahiz zenbaitek izenpetua; behar diren aurrekariekin batera, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 123.1. artikuluan aurreikusitakoetako izaera organikoko araudietako bat –Tokiko Gobernu Batzarraren Araudi Organikoa salbu– egin edo dagoen bat aldatzeko premia justifikatzen duten arrazoiak azaltzen dituen adierazpena bildu beharko du bere baitan proposizio horrek. Halakoetan, izenpetzen duen Zinegotziak edo direlako eledunek aldeztu beharko dute proposizioa.

178. artikulua.- Egutegia.

Batzordeko Lehendakariak, beti ere administrazio prozedura erkidearen araudia errespetatzen duelarik, tramitazio egutegi bat proposatu eta bozkaraziko du. Tramitazio hori errazteko, batzorde txostengile bat eratu ahal izango da.

179. artikulua.- Txostenak.

Arauzko diren txostenak berekin ez dakartzan proposizio bat tramitatu behar bada, epe egokia aurreikusiko da egutegian horiek egin ahal izateko, zeinek ez baitu 10 lanegunetik beherakoa izan beharko. Bestelako txostenik egiteko ere jarri ahal izango da eperik.

180. artikulua.- Ekarpenak eta zuzenketak.

180.1. Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoan hala ezarrita dagoenean, eskumena duten herritarren parte-hartze organoei bidaliko zaie proiektua, berorien ekarpenak biltzeko.

180.2. Tramitatzen ari den araudi organikoaren proiektu edo proposizioaren gaineko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte udal taldeek Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan, gutxienez 20 laneguneko epean.

181. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo absolutuz emango du batzordeak araudi organikoari hasierako onespina emateko proposamenaren gaineko irizpena, bere osotasunean agertzen duen haren aldeko nahiz kontrako jarrera, Gobernu Batzarrak onetsitako edo proposamena egin dutenen emandako idazkuntza berarekin, edo, halakorik izan bada, alde aurretik onetsitako zuzenketen ondorio diren aldakuntzak jasotzen dituen testuaren aldekoa.

182. artikulua.- Alegazioak.

Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkezten bada, Gobernu Batzarrak edo tramitatzen ari den proposizioaren egileek horiek onartu edo baztertzeko egiten dioten proposamenari buruzko irizpena ere eman beharko du batzordeak, aurkezten zaizkion txostenak aintzat hartuta.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

183. artikulua.- Hasierako onespina.

Irizpena jaso duen araudia Udalbatzan aurkeztuko da hasierako onespina eman diezaion, eta, behin hori gehiengo absolutuz lorturik, jendaurrean jarriko da gutxienez 30 lanegunetik edo toki jaurbidearen araudian finkatzen den epean, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin Gasteizko Udaleko Erregistro Nagusian. Gobernu Batzarra jendaurreko erakustaldi horren jakinaren gainean jarri beharko da, bere ekimeneko proiektu bat tramitean badago.

184. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea.

184.1. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten bada, beharrezko diren txostenak eskatuko dituzte bai Gobernu Batzarrak, bai tramitatzen ari den proposizioaren egileek horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo.

184.2. Erreklamazioak onartzeko proposamenak funtsezko aldakuntzak badakarzkio hasierako proiektuari, hura onetsi aurreko fasera itzuli beharko da dosierra.

185. artikulua.- Proposizioa erretiratzea.

Erreklamazioak onartzearen ondorioz funtsezko aldakuntzak izan dituen proposizio jakin baten egileek aukera izango dute hori erretiratzeko.

186. artikulua.- Behin betiko onespena.

186.1. Erreklamazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udalbatzan, hori ebatzi eta araudia behin betiko onestearen inguruko erabakia har dezan –aldez aurretik arauzko irizpena eman beharko du eskumena duen Udalbatzaren batzordeak–. Gehiengo absolutuz hartuko da erabakia.

186.2. Erreklamazio edo iradokizunik erregistratu ez bada, behin betikotzat joko da araudia onesteko erabakia, ordura arte behin-behinekoa zena.

VIII. TITULUA.- ZERGAK ETA PREZIO PUBLIKOEN KOBRANTZA ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZAK NAHIZ KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKARITZARI BURUZKO ORDENANTZAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

187. artikulua.- Tramitatzen hastea.

187.1. Gobernu Batzarrak onetsitako proiektua, tramitatutako dossier osoarekin batera, arlo horretan eskumena duen batzordean aurkezten denean joko dira batzordean tramitatzen hasitakotzat zergak eta prezio publikoen kobrantza arautzen dituzten ordenantzak nahiz kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantzak; horretarako, Alkateak edo hark ordeztu izendatzen duen Zinegotziak agertu beharko du batzordera.

187.2. Orobat hasi ahalko da tramitatzen proposizio bat aurkezten delarik batzordearen aurrean, Zinegotziren batek edo udal talde batek nahiz zenbaitek izenpetua, edo boto eskubidea duten herritarren ehuneko baten sinaduren eta Udalbatzako sei Zinegotziren abala duten ekimenen bidez; behar diren aurrekariekin batera, ordenantza berria egin edo dagoena aldatzeko premia justifikatzen duten arrazoiak azaltzen dituen adierazpena eta Udalbatzan aurkeztu nahi den testu artikulatua bildu beharko ditu bere baitan proposizio horrek. Halakoetan, izenpetzen duen Zinegotziak edo direlako eledunek aldeztu beharko dute proposizioa.

188. artikulua.- Egutegia.

188.1. Batzordeko Lehendakariak, beti ere administrazio prozedura erkidearen alorreko araudia errespetatzen duelarik, tramitazio egutegi bat proposatu eta bozkaraziko du, eta egutegi horrek lehentasuna izango du Udalbatzaren eta batzordeen gainerako lanen aldean. Tramitazio hori errazteko, batzorde txostengile bat eratu ahal izango da.

188.2. Arauzkoa izango da ordenantza fiskalei hasierako onespena eman aurretik Ordenantza Fiskalen Entzunaldi Publikoa deitzea, eta bertan ahalik eta modurik ulergarrienean aurkeztea. Entzunaldi horren ondoren herritarrek nahiz herritar erakundek alegazioak eta iradokizunak aurkezteko epea zabalduko da.

189. artikulua.- Txostenak.

Arauzko diren txostenak berekin ez dakartzan proposizio bat tramitatu behar bada, epe egokia aurreikusiko da egutegian horiek egin ahal izateko, zeinek ez baitu 10 lanegunetik beherakoa izan beharko. Bestelako txostenik egiteko ere jarri ahal izango da eperik.

190. artikulua.- Zuzenketak.

Ordenantza proiektuaren gaineko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte udal taldeek Udaltzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan, gutxienez 15 egun naturaleko epearen barruan.

191. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo soilez emango du batzordeak ordenantzari behin-behineko onespina emateko proposamenaren gaineko irizpena, bere osotasunean agertzen duen haren aldeko nahiz kontrako jarrera, edo, halakorik izan bada, alde aurretik onetsitako zuzenketa ondorio diren aldakuntzak jasotzen dituen testuaren aldekoa.

192. artikulua.- Erreklamazioak.

Jendaurreko erakustaldian erreklamazio edo iradokizunik aurkezten bada, Gobernu Batzarrak edo tramitatzen ari den proposizioaren egileek horiek onartu edo baztertzeko egiten dioten proposamenari buruzko irizpena ere eman beharko du batzordeak, aurkezten zaizkion txostenak aintzat hartuta.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

193. artikulua.- Behin-behineko onespina.

Irizpena jaso duen ordenantzari behin-behineko onespina eman beharko zaio, eta, behin hori lorturik, jendaurrean jarri beharko da 30 lanegunez edo toki ogasunen araudian finkatzen den epean. Gobernu Batzarra erakustaldi horren jakinaren gainean jarri beharko da, bere ekimeneko proiektu bat tramitean badago.

194. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea.

194.1. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten bada, beharrezko diren txostenak eskatuko dituzte bai Gobernu Batzarrak, bai tramitatzen ari den proposizioaren egileek horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo.

194.2. Erreklamazioak onartzeko proposamenak funtsezko aldakuntzak badakarzkio hasierako proiektuari, hura onetsi aurreko fasera itzuli beharko da dosierra.

195. artikulua.- Proposizioa erretiratzea.

Erreklamazioak onartzearen ondorioz funtsezko aldakuntzak izan dituen proposizio jakin baten egileek aukera izango dute hori erretiratzeke.

196. artikulua.- Behin betiko onespina.

196.1. Erreklamazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udaltzaren, hori ebatzi eta ordenantza behin betiko onestearen inguruko erabakia har dezan –alde aurretik arauko irizpena eman beharko du eskumena duen Udaltzaren batzordeak–. Gehiengo soilez hartuko da erabakia.

196.2. Erreklamazio edo iradokizunik erregistratu ez bada, behin betikotzat joko da araudia onesteko erabakia, ordura arte behin-behinekoa zena.

IX. TITULUA.- BESTELAKO ORDENANTZA ETA ARAUDIAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

197. artikulua.- Tramitatzen hastea.

197.1. Gobernu Batzarrak onetsitako proiektua, tramitatutako dossier osoarekin batera, arlo horretan eskumena duen batzordean aurkezten denean eta Udalerriko Gizarte Kontseiluan informatu ondoren joko dira batzordean tramitatzen hasitakotzat ordenantza eta araudiak; horretarako, Alkateak edo hark ordezeko izendatzen duen Zinegotziak agertu beharko du batzordera.

197.2. Orobat hasi ahalko da tramitatzen proposizio bat aurkezten delarik batzordearen aurrean, Zinegotziren batek edo udal talde batek nahiz zenbaitek izenpetua; behar diren aurrekariekin batera, ordenantza edo araudi berri bat egin edo dagoen bat aldatzeko premia justifikatzen duten arrazoiak azaltzen dituen adierazpena eta Udalbatzan aurkeztu nahi den testu artikulatua bildu beharko ditu bere baitan proposizio horrek. Halakoetan, izenpetzen duen Zinegotziak edo direlako eledunek aldeztu beharko dute proposizioa.

198. artikulua.- Egutegia.

Batzordeko Lehendakariak, beti ere administrazio prozedura erkidearen araudia errespetatzen duelarik, tramitazio egutegi bat proposatu eta bozkaraziko du. Tramitazio hori errazteko, batzorde txostengile bat eratu ahal izango da.

199. artikulua.- Txostenak.

Arauzko diren txostenak berekin ez dakartzan proposizio bat tramitatu behar bada, epe egokia aurreikusiko da egutegian horiek egin ahal izateko, zeinek ez baitu 10 lanegunetik beherakoa izan beharko. Bestelako txostenik egiteko ere jarri ahal izango da eperik.

200. artikulua.- Zuzenketak.

Ordenantza proiektuaren gaineko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte udal taldeek Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan, gutxienez 15 egun naturaleko epearen barruan.

201. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo soilez emango du batzordeak ordenantzari hasierako onespina emateko proposamenaren gaineko irizpena, bere osotasunean agertzen duelarik haren aldeko nahiz kontrako jarrera, edo, halakorik izan bada, alde zuzenetik onetsitako zuzenketa onorio diren aldakuntzak jasotzen dituen testuaren aldekoa.

202. artikulua.- Erreklamazioak.

Jendaurreko erakustaldian erreklamazio edo iradokizunik aurkezten bada, Gobernu Batzarrak edo tramitatzen ari den proposizioaren egileek horiek onartu edo baztertzeko egiten dioten proposamenari buruzko irizpena ere eman beharko du batzordeak, aurkezten zaizkion txostenak aintzat hartuta.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

203. artikulua.- Hasierako onespena.

Irizpena jaso duen ordenantzari hasierako onespena eman beharko zaio, eta, behin hori lorturik, jendaurrean jarri beharko da 15 lanegunez edo toki jaurbidearen araudian finkatzen den epean. Gobernu Batzarra erakustaldi horren jakinaren gainean jarri beharko da, bere ekimeneko proiektu bat tramitean badago.

204. artikulua.- Erreklamazioak ebaztea.

204.1. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten bada, beharrezko diren txostenak eskatuko dituzte bai Gobernu Batzarrak, bai tramitatzen ari den proposizioaren egileek horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo.

204.2. Erreklamazioak onartzeko proposamenak funtsezko aldakuntzak badakarzkio hasierako proiektuari, hura onetsi aurreko fasera itzuli beharko da dosierra.

205. artikulua.- Proposizioa erretiratzea.

Erreklamazioak onartzearen ondorioz funtsezko aldakuntzak izan dituen proposizio jakin baten egileek aukera izango dute hori erretiratzeko.

206. artikulua.- Behin betiko onespena.

206.1. Erreklamazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udalbatzan, hori ebatzi eta ordenantza behin betiko onestearen inguruko erabakia har dezan –aldeztatik aurretik arauzko irizpena eman beharko du eskumena duen Udalbatzaren batzordeak–. Gehiengo soilez hartuko da erabakia.

206.2. Erreklamazio edo iradokizunik erregistratu ez bada, behin betikotzat joko da araudia onesteko erabakia, ordura arte behin-behinekoa zena.

X. TITULUA. HIRIGINTZAREN ALORREKO LEGEDIAN AURREIKUSITAKO ANTOLAKUNTZA PLAN ETA INSTRUMENTUAK EGIN ETA ONESTEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. PLANEAMENDU OROKORRA

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

207. artikulua.- Tramitatzen hastea.

Gobernu Batzarrak onetsitako proiektua, tramitatutako dossier osoarekin batera, arlo horretan eskumena duen batzordean aurkezten denean joko dira batzordean tramitatzen hasitakotzat planeamendu orokorreko instrumentuak; horretarako, Alkateak edo hark ordeztuko izendatzen duen Zinegotziak agertu beharko du batzordera.

208. artikulua.- Egutegia.

Batzordeko Lehendakariak, beti ere administrazio prozedura erkidea eta hirigintzaren alorreko araudia errespetatzen dituelarik, tramitazio egutegi bat proposatu eta bozkaraziko du, eta egutegi horrek lehentasuna izango du Udalbatzaren eta batzordeen gainerako lanen aldean. Tramitazio hori errazteko, batzorde txostengile bat eratu ahal izango da.

209. artikulua.- Ekarpenak eta zuzenketak.

209.1. Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoan hala ezarrita dagoenean, eskumena duten herritarren parte-hartze organoei bidaliko zaie proiektua, berorien ekarpenak biltzeko.

209.2. Zuzenketak aurkezteko epea zabaldu dezala eskatu ahal izango diote udal taldeek batzordeko Lehendakariari. Aurkezten diren zuzenketak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan jasoko dira, eta gainerako udal taldeei nahiz Gobernu Batzarrari emango zaie horien berri.

210. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo absolutuz emango du batzordeak planeamendu orokorreko dena delako instrumentuari hasierako onespina emateko proposamenaren gaineko irizpena, bere osotasunean agertzen duelarik haren aldeko nahiz kontrako jarrera, Gobernu Batzarrak onetsitako idazkuntza berarekin, edo, halakorik izan bada, alde zuretik onetsitako zuzenketen ondorio diren aldakuntzak jasotzen dituen agiriaren aldekoa.

211. artikulua.- Alegazioak.

Jendaurreko erakustaldian alegaziorik aurkezten bada, orobat eman beharko du irizpena batzordeak horiek onartu edo baztertzeko Gobernu Batzarrak egiten dion proposamena dela eta.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

212. artikulua.- Hasierako onespina.

Irizpena jaso duen agiriari hasierako onespina eman beharko zaio, eta, behin hori gehiengo absolutuz lorturik, jendaurrean jarriko da, hirigintzaren alorreko araudian xedatutakoari jarraiki. Gobernu Batzarra erakustaldi horren jakinaren gainean jarri beharko da.

213. artikulua. Alegazioak ebatzea eta behin-behineko onespina.

213.1. Alegaziorik aurkezten bada, beharrezko diren txostenak eskatuko ditu Gobernu Batzarrak horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo du.

213.2. Alegazioak onartzeko proposamenak funtsezko aldakuntzak badakarzkio hasierako proiektuari, hari hasierako onespina eman aurreko fasera itzuli beharko da dosierra.

213.3. Alegazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udalbatzan, hori ebatzi eta planari behin-behineko onespina ematearen inguruko erabakia har dezan –aldez aurretik arauzko irizpena eman beharko du eskumena duen Udalbatzaren batzordeak–. Gehiengo absolutuz hartuko da erabakia.

214. artikulua.- Behin betiko onespina.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin edo horretarako epea igaro ondoren emango dio behin betiko onespina Udalbatzak behin-behineko onespina jaso duen planari.

2. KAPITULUA. BESTELAKO ANTOLAKUNTZA PLAN ETA INSTRUMENTUAK

Lehen atala. Batzordean tramitatzea.

215. artikulua.- Tramitatzen hastea.

Gobernu Batzarrak hasierako onespena emandako instrumentua, tramitatutako dossier osoarekin batera, arlo horretan eskumena duen batzordean aurkezten denean joko dira batzordean tramitatzen hasitakotzat planeamendu orokorraz bestelako planeamendu eta antolakuntza instrumentuak; orobat aurkeztu beharko dira jendaurreko erakustaldian egindako alegazioen gaineko proposamenak, eta planari behin betiko onespena emateko proposamena. Agiriaren funtsezko aldakuntza dakarten alegazioak onartzen badira, hari hasierako onespena eman aurreko fasera itzuli beharko da dosierra; beraz, Gobernu Batzarrak ez dio proposamenik igorriko Udalbatzari zentzu horretan, baizik eta aldatutako instrumentua onestea erabakiko du berriro ere.

216. artikulua.- Egutegia.

Zuzenketak aurkezteko epea zabaldu dezala eskatu ahal izango diote udal taldeek batzordeko Lehendakariari. Aurkezten diren zuzenketak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan jasoko dira, eta gainerako udal taldeei nahiz Gobernu Batzarrari emango zaie horien berri.

217. artikulua.- Irizpena.

Gehiengo soilez emango du irizpena batzordeak, eta egindako alegazioak onartzearen aldeko edo kontrako jarrera agertuko du bertan, baita antolakuntza instrumentuaren behin betiko onespeneren aldekoa edo kontrakoa ere, dela bere osotasunean, Gobernu Batzarrak onetsitako idazkuntza berarekin, dela onartutako alegazio eta zuzenketen ondorio diren aldakuntzak hartan txertatu ondoren, halakorik izan bada.

Bigarren atala. Udalbatzan tramitatzea.

218. artikulua.- Behin betiko onespena.

218.1. Alegazio onargarriak munta gutxiagokoak badira, edo bat ere ez bada onargarri, horiek onartu edo baztertzeko proposamena egingo da Udalbatzan, hori ebatzi eta planari behin betiko onespena ematearen inguruko erabakia har dezan –aldeztatik aurreratik arauzko irizpena eman beharko du eskumena duen Udalbatzaren batzordeak.

218.2. Gehiengo soilez hartuko da erabakia.

X. BIS TITULUA. KONTU OROKORRA ONESTEKO PROZEDURA

1. Dossier osoa, Alkateak edo hark ordezkari izendatzen duen Zinegotziak izenpetutako onespeneren aldeko txosten-proposamenarekin batera, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkezten denean –maiatzaren 2a baino lehen egin beharko da– joko dira abiatutzat Kontu Orokorra batzordean onesteko izapideak.

2. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak Kontuen Batzorde Bereziko Lehendakariari emango dio erregistratze horren berri, eta epe bat jarriko du hark batzordeko kideek dosierra aztertzerik izan dezaten. Epe hori ezingo da izan 7 lanegunetik beherakoa.

3. Delako epe hori igaro ondoren, Kontuen Batzorde Berezia irizpena jaso beharko du Kontu Orokorrak, maiatzaren 15a baino lehen jaso ere; aurkeztutako proposamenari jarraiki onestearen aldekoa izango da gehiengo soilez hala onartzen bada, eta onestearen kontrakoa, aldiz, hala ez bada.

4. Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean jarriko da 15 lanegunez, eta interesdunek erreklamazioak, erreparoa edo oharrak aurkeztu ahal izango dituzte epe horretan. Horiek aztertu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ondoren, beste txosten bat egin beharko du batzorde bereziak; hasierakoa berretsi edo txosten berria egin beharko du.

5. Kontu Orokorra onestearen kontrako edozein irizpenen baitako arrazoiak dosierrean jaso beharko dira. Hain zuzen ere, hura aldezen duten Zinegotziek emandakoak izango dira arrazoi horiek, eta batzorde bereziaren edozein bilkuratan aurkeztutako idazkiaren bitartez edo hartan egindako mintzaldia hitzez hitz aldatuz jasoko dira.

6. Prozeduraren edozein unetan, Kontuen Batzorde Bereziak, Lehendakariaren bitartez, Kontua osatzen duten agiritako edozeinen aurrekariak bidaltzeko eskatu ahal izango dio Alkateari edo hark hura aurkezteko bere ordezkari izendatu duen Zinegotziari. Gehienez 5 eguneko epean egin beharko da bidalketa hori, eskabidea egiten denetik.

Halaber, dosierra izapidetzen den bitartean, Kontuen Batzorde Bereziak, Lehendakariaren bitartez, egokitzen jotzen dituen txosten teknikoak egin daitezela eskatu ahal izango du.

7. Batzorde bereziaren txostenekin eta egindako erreklamazio eta erreparoekin batera, Udalbatzan aurkeztuko da Kontu Orokorra, uztailaren 31 baino lehen.

XI. TITULUA. BATZORDE TXOSTENGILEAK

219. artikulua.- Eratzea.

Udalbatzaren batzorde jakin bateko kideek, Lehendakariak edo edozein eledunek hala proposaturik, batzorde txostengile bat eratzea erabaki ahal izango dute gehiengo absolutuz, haren eskumenerako gaien tramitazioa errazteko, baita tramitazio horri ekin aurretik ere, eta gehienez ere 3 hilabeterako. Batzordeak erabakitzen duen moduan luzatu ahal izango da epe hori.

220. artikulua.- Osaera.

Taldeek batzordean dituzten Zinegotziek osatuko dute batzorde txostengilea, salbu eta eledunek besterik izendatzen badute, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztutako idazkia dela medio. Batzordeko Lehendakaria izango da Lehendakari batzorde txostengilean ere.

221. artikulua.- Funtzionamendua.

Batzorde txostengileetan ez da tramitatuko udal gobernua kontrolatzeko ekimenik, ezta irizpenik onetsiko ere. Ateak itxita egingo dira bilkurak, eta, baldin eta ondorioak formulatzeko beharrezko bada, iritzi komuna agertuko dute batzorde txostengileko kideek adostasunez, edo boto haztatuaren teknika baliatuz lortutako gehiengo dela medio.

XII. TITULUA. UDALBATZAK IZAERA BETEARAZLEA DUTEN ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA

1. KAPITULUA. EKIMENA

222. artikulua.- Ekimena eta moduak.

Alkatearen, Gobernu Batzarraren, Zinegotzien nahiz udal taldeen ekimenez hartuko ditu erabakiak Udalbatzak. Baita herritarren ekimenez ere, berariazko araudiari jarraiki.

Ekimen politikoak proposatzeko moduak araudi honen II. tituluko 7. kapituluaren adierazitakoak izango dira.

2. KAPITULUA. BATZORDEAN TRAMITATZEA

223. artikulua.- Prozedura abiaraztea.

Udal taldeen proposizioak, Gobernu Batzarraren proiektuak eta Alkatearen nahiz Zinegotzi ordezkarien proposamenak Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Erregistroan sartzen direlarik formalizatuko dira, eta gaia dela eta eskumena duen batzordearen ohiko bilkura baino gutxienez 5 lanegun lehenago egin beharko da hori, gai-zerrendan sartuko badira. Bideratutako dossier osoak eraman beharko dituzte berekin, eta sexismorik gabeko hizkeran idatzita eta berdintasunaren alorrean indarrean dagoen araudira egokituta egon beharko dute.

224. artikulua.- Zerrendatik kanpoko gaiak.

Batzordeen ohiko bilkuretan, hala ere, gai-zerrendetan sartu ez diren gaiak eztabaidatu eta bozkatzeko proposamena egin ahal izango diete Lehendakariak bertako kideei, gai horiek premiazkoak baldin badira; batzordeko gehiengoak alde agertzen bada, onartu egingo da hala egitea.

225. artikulua.- Mintzatzeko txandak eta irizpena.

225.1. Ekimenaren egilearen mintzaldiarekin hasiko da proposamenen eztabaida batzordean, eta ondoren taldeen eledunak mintzatzeko dira.

225.2. Proposamenaren gaineko irizpena emango du batzordeak, haren aldeko nahiz kontrako jarrera agertzen duelarik –idatzia dagoen moduan– edo, halakorik izan bada, alde zuzenetik onetsitako zuzenketen ondorio diren aldakuntzak jasotzen dituen testuaren aldekoa.

225 bis artikulua.- Zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

1. Osoarekikoak nahiz artikulatu jakin batzuen gainekoak izan ahalko dira zuzenketak, eta idatziz aurkeztu beharko dira, araudian zehaztutako epeetan.

2. Idatziz aurkeztutako zuzenketak eztabaidatzen ari diren batzordearen edo Udalbatzaren bilkuretan “in voce” zuzenketak aurkeztu ahal izango dira, akats edo oker teknikoak, terminologikoak edo gramatikalak zuzentzea delarik helburua.

3. Osoarekiko zuzenketak proiektua Tokiko Gobernu Batzarrari itzultzea eskatzen dutenak izango dira, baita testu alternatiboa proposatzen dutenak ere.

4. Artikuluen gaineko zuzenketak zerbait kentzeko, aldatzeko, gehitzeko edo transakziorako izan ahalko dira. Zerbait aldatzeko edo gehitzeko zuzenketek proposatzen den testu zehatza jaso beharko dute.

5. Batzordeko edo Udalbatzako Lehendakariak adierazten duen ordenari jarraiki eztabaidatuko dira zuzenketak. Nolanahi ere, osoarekiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenik, aurkeztu diren hurrenkeran, eta horietakoren bat onetsiz gero, bertan behera geratuko dira zuzenketa partzialak.

6. Aurkeztu dituzten taldeek aldeztuko dituzte zuzenketak, labur-labur. Ondoren, behar izanez gero, dagokion Zinegotzi ordezkariak eta batzordeko taldeen gainerako eledunek edo horiek ordeztu dituzten Zinegotziak hartuko dute hitza.

Zuzenketak aurkeztu dituen taldeko Zinegotzirik ez badago bertan, eztabaidatu gabe bozkatuko dira horiek.

7. Taldeek aurkeztutako zuzenketak dena delako batzordearen edo Udalbatzaren bilkuran eztabaidatzen diren bitartean bi talde edo gehiagoren artean adosten diren transakzio zuzenketak idatziz jaso beharko dira bozkatu aurretik. Transakzio zuzenketa bat zuzentzen zaion taldeek hura onartzen badu, hori bozkatuko da. Bestela, berriz, zuzenketa hori bozkatuko da lehenik, proposatu duen taldearen zuzenketa gisa, eta onesten ez bada, gauza bera egingo da hasiera batean aurkeztutako zuzenketarekin, hau da, transakzioa egin nahi zizaienarekin.

8. Edozein taldek bere zuzenketak erretiratzetik izango du, eztabaidatzen diren bitartean.

9. Batzordean osoarekiko zuzenketa jakin bat onartzen delarik, dena delako gaia ezingo da sartu Udalbatzaren bilkuren gai-zerrendan, salbu eta Eledunen Batzarrak kontrakoa erabakitzen badu.

10. Udal taldeek dena delako batzordearen bilkuran adierazi beharko dute zein diren eztabaidatu eta bozkatu ondoren irizpenean sartu ez direlarik Udalbatzan aldeztu nahi dituzten zuzenketak.

Udalbatzara igorriko den irizpenean jasotzen den proposamenaren gaineko zuzenketak eta boto partikularrak idatziz aurkeztu beharko dira beti ere, Udalbatzaren dena delako bilkura baino lanegun bat lehenago.

11. Ordenantza eta araudiei behin betiko onespina emateko aldiari alegazioak onetsi edo ezesteko proposamenaren inguruko zuzenketak eta 2. atalean adierazitakoak bezalakoak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

3. KAPITULUA. UDALBATZAN TRAMITATZEA

226. artikulua.- Eztabaidatu beharreko gaiak.

Batzordeek irizpena emandako proposamenak Udalbatzaren bilkuren gai-zerrendetan sartuko dira. Ohiko bilkuretan orobat eztabaidatu eta onetsi ahal izango dira premiazko mozioak.

227. artikulua.- Mintzaldien ordena.

Ekimenaren egilearen mintzaldiarekin hasiko da proposamenen eztabaida Udalbatzan, eta ondoren taldeen eledunak mintzatuko dira, Eledunen Batzarrak finkatutako hurrenkerari jarraiki.

228. artikulua.- Bozketak.

Araudi honen II. tituluko 9. kapituluan xedatutakoaren arabera egingo dira bozketak.

XIII. TITULUA. GOBERNUA KONTROLATZEKO TRESNAK

1. KAPITULUA. BATZORDEAN

228 bis artikulua.- Kontrol ekimenen mugak, Udalbatzaren batzordeetan.

5 kide edo gehiagoko talde politikoek gehienez 4 ekimen aurkeztu ahal izango dituzte Udalbatzaren batzordeen bilkuretan. 5 kide baino gutxiagoko talde politikoek, berriz, gehienez 2 ekimen aurkeztu ahal izango dituzte.

Hirigintza Batzordearen kasuan, 3ra igoko da 5 kide baino gutxiagoko talde politikoek ekimenen kopurua.

Lehen atala. Gaitzespenak.

229. artikulua.- Kontzeptua eta betebeharrak.

Zinegotzi ordezkarien jarduera edo portaera jakin batekiko desadostasuna adierazten duen deklarazioa da. Batzordean eztabaidatu ahal izango dira, baina bozketa Udalbatzan baino ezingo da egin.

Gutxienez ere batzordeko Zuzenbidezko kideen 2 bostenek egin beharko dute, sustatzaile guztiek pertsonalki izenpetutako idazkiaren bidez; Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkeztu beharko da idazki hori, gutxienez ere bilkura baino 7 egun natural lehenago, eta gaitzespenaren arrazoiak eta hartzailea adierazi beharko dira bertan, labur-labur.

230. artikulua.- Tramitazioa.

Aparteko kontrol bilkurarako deia egingo du Lehendakariak gaitzespenaz jarduteko, eta eragindako pertsonari emango dio deialdi horren berri, inolaz ere ezingo baita eztabaidatu bere bertan izan gabe. Interesdunari ezinezko bazaio bilkurara agertzea, arrazoiak biltzen dituen idazki baten bidez justifikatu beharko du –Idazkaritza Nagusian erregistratu beharko du–. Aparteko beste bilkura baterako deialdia egingo du Lehendakariak halakoetan, 3 laneguneko epean –eragindako pertsona bertara agertzea ezinezkoa dela gauza jakina denean bakarrik luzatu ahal izango da epe hori.

Bigarren atala. Gobernu organoen agerraldiak.

231. artikulua.- Kontzeptua.

Gobernu ardurak dituzten Zinegotzi guztiek, baita Zinegotzi izan gabe Gobernu Batzarreko kide direnek ere, Udalbatzaren edozein batzordetara agertzeko eskubidea dute, baita agertu beharra ere, batzorderen bateko Lehendakariak deituz gero, beren jarduna dela eta egiten zaizkien galderei erantzuteko.

232. artikulua.- Betebeharrak.

232.1. Agertu beharrekoak berak eskatuta, batzordeko zuzenbidezko kideen gutxienez bosten batek eskatuta nahiz portzentaje bera ordezkatzan duten udal taldeen eledunek eskatuta egingo da horrelakoetarako deialdia. Gainera, portzentaje horretara iristen ez diren talde politikoek berek dituzten kideak adina agerraldi eskatu ahal izango dituzte batzorde bakoitzean, bilkura-aldi bakoitzean. Horretarako, hauek joko dira bilkura-alditzat: urtariletik apirilera bitartekoa, maiatzetik uztaile bitartekoa eta irailetik abendura bitartekoa.

232.2. Nolanahi ere, sustatzaileek pertsonalki izenpetutako idazkiaren bidez egin beharko da eskaria; Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkeztu beharko da idazki hori, gutxienez ere bilkura baino zazpi egun natural lehenago, eta gaitzespenaren arrazoiak eta aztertu beharreko gaiak adierazi beharko dira bertan labur-labur, baita nork agertu beharko duen ere.

232 bis artikulua.- Agerraldiaren nondik norakoak.

1. Eskabidea egin duten taldeen gehienez 10 minutuko azalpenarekin emango zaio hasiera agerraldiari, eta agertuaren mintzaldia jarraikiko zaio horri.

2. Ondoren taldeen txanda izango da, talde txikienetik handienera, zein agerraldia eskatu duen taldeak eta agertuak itxiko baitute. Mintzaldiak ezingo du izan 5 minututik gorakoa, talde bakoitzeko.

3. Agerraldia Zinegotzi ordezkariak berak edo Tokiko Gobernu Batzarreko Zinegotzi ez den kide batek eskatuta egiten bada, agertuaren azalpenarekin hasiko da. Taldeen txanda izango da gero, talde txikienetik handienara, talde bakoitzeko gehienez 5 minutukoa, eta agertuak itxiko du agerraldia.

4. Artikulu honetan adierazitakoak baino txanda gehiago ematea batzordeko Lehendakariaren eskumena izango da.

233. artikulua.- Premiazko agerraldiak.

Premiazkotzat jotzen diren agerraldiek batzordearen aparteko eta premiazko bilkura egitea ekarriko dute berekin –Lehendakariak egingo du deialdia, aplikagarri den araudiari jarraiki.

Hirugarren atala. Galdeak.

234. artikulua.- Betebeharrak.

Udalbatzako edozein kidek nahiz udal taldeek –eledunen bitartez– egin ahal izango dituzte galdeak; horretarako, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian erregistratu beharko dute idazkia, eta handik igorriko zaio hartzaileari.

235. artikulua.- Ahoz erantzuteko galdeak.

235.1. Batzordearen bilkuran ahoz erantzutea nahi bada, berariaz adierazi beharko da, eta gertaera, egoera edo informazio jakin bati buruz galdetu beharko da; orobat galdetu ahal izango da udal gobernuak gai jakin baten inguruan probidentziarik hartu duen edo hartuko duen, edo Udalbatzari zer edo zeri buruzko agiri jakin bat aurkeztu edo informazioa emango dion. Dena delako batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartuko dira galdeak.

235.2. Galdeen eta horien erantzunen inguruko eztabaidan galdea egin duten taldeen ordezkariak eta erantzutea egokitu zaion gobernu-organoak bakarrik parte hartu ahal izango dute.

236. artikulua.- Idatziz erantzuteko galdeak.

Kontrakorik adierazi ez bada, idatziz erantzuteko egindakotzat joko dira galdeak. Udal gobernuaren erantzuna Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian utziko da, galdegileari eta udal talde guztiei bidal dakien, gehienez 15 egun naturaleko epean. Hala egin ezean, dena delako batzordearen hurrengo ohiko bilkuraren gai-zerrendan sartu beharko dira erantzun gabeko galdeak, kopuru mugarik gabe. Halaber, ez zaie aplikagarri izango erantzun gabeko galdeei araudi honen 228 bis artikuluan adierazitakoa.

Laugarren atala. Eskeak.

237. artikulua.- Kontzeptua.

Eskumena duten gobernu organoei zuzendutako jarduera-proposamenak dira.

238. artikulua.- Betebeharrak.

Udalbatzako edozein kidek nahiz udal taldeek –eledunen bitartez– egin ahal izango dituzte eskeak.

239. artikulua.- Tramitazioa.

Eztabaidatu ahal izango dira eskeak, baina ez bozkatu.

2. KAPITULUA. UDALBATZAN

240. artikulua.- Udalbatzako kontrol ekimenen mugak.

240.1. Udalbatzako kontrol ekimenei dagokienez, talde bakoitzak bilkura bakoitzean aurkeztu ahal izango dituenak mugatuta egongo dira, bertako kideen kopuruaren arabera.

240.2 Bost kide edo gehiagoko talde politikoek gehienez lau ekimen aurkeztu ahal izango dituzte Udalbatzaren bilkuretan. Bost kide baino gutxiagoko talde politikoek, berriz, gehienez bi ekimen aurkeztu ahal izango dituzte.

240.3. Udalbatzaren laurden bat osatzen duten taldeek bina galde eta bina eske egin ahalko dituzte Udalbatzaren bilkura bakoitzean. Aldiz, Udalbatzaren laurdena baino gutxiago diren taldeek galde bana eta eske bana baino ezingo dute egin bilkura bakoitzean.

240.4. Udalbatzaren laurden bat osatzen duten taldeek bina interpelazio egin ahalko dituzte Udalbatzaren bilkura bakoitzean. Aldiz, Udalbatzaren laurdena baino gutxiago diren taldeek interpelazio bana baino ezingo dute egin bilkura bakoitzean.

240.5 **Herritarren partaidetzarako udal-organismoek eta** dagozkien erregistro ofizialetan izena emanda dauden herritar erakundeek ekimen bakarra aurkeztu ahal izango dute Udalbatzaren bilkuretan. Udalbatzaren bilkura bakoitzean, **herritarren partaidetzarako udal-organismoen** eta herritarren erakundeen mozio edo ekimen bakarra eztabaidatuko da, eta loturarik gabeko herritarren txanda bakarra izango.

Lehen atala. Gaitzespena.

241. artikulua.- Kontzeptua.

Zinegotzi ordezkarien edo, halakorik bada, hautetsi izan gabe Tokiko Gobernu Batzarreko kide den edonoren jarduera edo portaera jakin batekiko desadostasuna adierazten duen deklarazioa da. Halaber, Udalbatzak delako jarduera edo portaera –baita erantzukizunaren titularra ere– zentsuratzeko egiten duen deklarazio politikoa da, baita Udalbatzak hari egiten dion agiraka zorrotza ere.

242. artikulua.- Betebeharrak.

242.1. Udalbatzan eztabaidatu eta bozkatuko dira gutxienez bertako zuzenbidezko kideen bi 5en ordezkatzeko dituen talde batek –edo batzuek– horretarako egindako gaitzespenak.

242.2. Sustatzaile guztiek pertsonalki izenpetutako idazkiaren bidez proposatu beharko dira gaitzespenak; Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan aurkeztu beharko da idazki hori, gutxienez ere bilkura baino 7 egun lehenago, eta gaitzespenaren arrazoiak eta hartzailea adierazi beharko dira bertan, labur-labur.

243. artikulua.- Tramitazioa.

Udalbatzako eztabaidan, lehenik proposamena egin duten taldeak mintzatuko dira, gehienez ere 15 minutuz. Ondoren gainerako udal taldeek parte hartuko dute, txikienetik hasi eta handienera, mintzaldi bakoitzeko 10 minutuko mugarekin. Ondoren erantzun txanda bat zabalduko da, aurreko ordena berean, eta 5 minutu izango ditu talde bakoitzak gehienez.

Bigarren atala. Gobernu organoen agerraldiak

Lehen zatia. Zinegotzien agerraldiak.

244. artikulua.- Kontzeptua.

Udalbatzaren aurrera agertzerak behartuta egongo dira gobernu ardurak dituzten Zinegotzi guztiak hark hala erabakitzen duenean, beren jarduna dela eta egiten zaizkien galderei erantzuteko.

245. artikulua.- Tramitazioa.

245.1. Udalbatzak agerraldia egitea erabakitzen duelarik, hurrengo ohiko nahiz aparteko bilkuraren gai-zerrendan sartuko du gaia Lehendakariak, eta hartutako erabakiaren berri emango dio interesdunari, baita agertu beharko duen bilkura noiz izango den jakinarazi ere. Jakinarazpen horren eta bilkuraren artean gutxienez ere 3 lanegun igaro beharko dute.

245.2. Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiaren 94. artikuluan finkatutako parte-hartze hurrenkerari jarraiki bideratuko da agerraldia, informatzaileak udal taldeek egiten dizkioten galderei erantzuteko parte hartzen duelarik. Inolaz ere ezingo du ekarri agerraldi horrek berekin erabakiak hartzea gaiak gai-zerrendan sartzeari buruzko betekizunak bete gabe aldeztu aurretik.

Bigarren zatia. Gobernu Batzarreko kideen agerraldia.

246. artikulua.- Onartzea.

Udalbatzak, Lehendakariak hala proposatzen badu edo gutxienez bertako kideen legezko kopuruaren laurden batek eskatzen, aparteko bilkura bat egitea erabaki ahal izango du, Gobernu Batzarraren kudeaketa eztabaidatzeko.

247. artikulua.- Agerraldiaren nondik norakoak.

Izaera orokorrean ezarritako arauak jarraiki bideratuko da bilkura, eta lehenik proposamenaren egilea mintzatuko da, berorren esanahia azaltzeko. Gobernu Batzarrak izendatutako bertako kide batek erantzungo du eta gero, erantzun-txanda banatan, gainerako udal taldeek parte hartu ahal izango dute Gobernu Batzarrari galderak egiteko, eta bertako kide batek erantzungo die horiei.

248. artikulua.- Agerraldian sortutako mozioak.

Eztabaidaren ondorioz mozio bat aurkeztu ahal izango da, Udalbatzak bere jarrera ager dezan Gobernu Batzarraren kudeaketa dela eta. Udalbatzak mozioa eztabaidatzea onartzen badu, hurrengo ohiko nahiz aparteko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da.

Hirugarren atala. Interpelazioak.

249. artikulua.- Betebeharrak.

249.1. Zinegotziek, beren taldearen bitartez, interpelazioak egin ahal izango dizkiote Gobernu Batzarrari, baita bertako kideetako bakoitzari ere.

249.2. Idatziz aurkeztu beharko dira interpelazioak, eta Gobernu Batzarrak bere politikaren alderdi jakinei dagozkien gaietan duen portaeraren arrazoi eta asmoen ingurukoak izan beharko dute.

249.3. Aurkeztutako idazkiak aurreko zenbakian adierazitako baldintzak betetzen dituen aztertuko du Eledunen Batzarrak. Hala ez bada, idazkia galde gisa tramita dadila aginduko du.

250. artikulua.- Tramitazioa.

Udalbatzan gauzatuko dira interpelazioak; azalpenak emateko txanda bat izango du interpelazioa egin duenak, gero Gobernu Batzarrak erantzungo du, eta gero erantzun txanda bana izango dute. Lehenengo mintzaldiek ezingo dute 10 minututik gorakoak izan, ezta bigarrenak 5etik gorakoak ere..

251. artikulua.- Interpelazioetan sortutako mozioak.

251.1. Interpelazio ororen ondorioz mozio bat sortu ahal izango da, eta bertan bere jarrera agertu Udalbatzak.

251.2. Interpelazioa egin duenak, bere taldearen bitartez nahiz berak zuzenean, interpelazioa Udalbatzan gauzatu ondorengo lehenengo astean aurkeztu beharko du aurreko atalean adierazi den mozioa. Eledunen Batzarrak onartu ondoren, Udalbatzaren hurrengo bilkuraren gai zerrendan sartuko da mozioa, eta zuzenketarik ere aurkeztu ahal izango da. Interpelazioekin bat baldin badator onartuko du mozioa Eledunen Batzarrak.

251.3. Mozioak direla-eta araututakoaren arabera egingo dira eztabaida eta bozketa.

Laugarren atala. Galdeak.

252. artikulua.- Betebeharrak.

Udalbatzako edozein kidek nahiz udal taldeek –eledunen bitartez– egin ahal izango dituzte galdeak; horretarako, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian erregistratu beharko dute idazkia, eta handik igorriko zaio hartzaileari.

253. artikulua.- Ahoz erantzuteko galdeak.

Udalbatzaren bilkuran ahoz erantzutea nahi bada, berariaz adierazi beharko da, eta gertaera, egoera edo informazio jakin bati buruz galdetu beharko da; orobat galdetu ahal izango da udal gobernuak gai jakin baten inguruan probidentziarik hartu duen edo hartuko duen, edo Udalbatzari zer edo zeri buruzko agiri jakin bat aurkeztu edo informazioa emango dion. Udalbatzaren hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartuko dira galdeak.

254. artikulua.- Idatziz erantzuteko galdeak.

Bestelakoan, idatziz erantzun beharreko galdetzat joko dira. Udal gobernuaren erantzuna Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian utziko da, galdegileari eta udal talde guztiei bidal dakien, gehienez 15 egun naturaleko epean. Hala egin ezean, Udalbatzaren hurrengo ohiko bilkuraren gai-zerrendan sartu beharko da erantzun gabeko galdea.

Bosgarren atala. Eskeak.

255. artikulua.- Kontzeptua.

Eskumena duten gobernu organoei zuzendutako jarduera-proposamenak dira.

256. artikulua.- Betebeharrak.

Udalbatzako edozein kidek nahiz udal taldeek –eledunen bitartez– egin ahal izango dituzte eskeak.

257. artikulua.- Tramitazioa.

Eztabaidatu ahal izango dira eskeak, baina ez bozkatu.

Seigarren atala. Kontrol mozioak.

258. artikulua.- Kontzeptua.

Ondorengo helburu hauetakoren batekin zuzenean Udalbatzan aurkezten diren proposamenak dira:

- Udalbatzak bere eskumeneko gairen bati buruzko erabaki-proposamena bidaltzeko eska diezaion eskumena duen gobernu organoari.
- Udalbatzak gai jakin bat eztabaidatu eta bere jarrera ager dezan.

259. artikulua.- Betebeharrak.

Edozein udal taldek eta **dagozkien erregistro ofizialetan** izena emanda dauden herritar erakundeek aurkeztu ahalko ditu kontrol mozioak; herritarren ekimenez ere aurkeztu ahalko dira, boto eskubidea duten herritarren ehuneko baten sinaduren eta Udalbatzako sei Zinegotziren abala dutelarik. Mozioak bilkura baino gutxienez 6 egun natural lehenago erregistratu beharko dira, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan. Udalbatzak jarrera jakin bat hartzea helburu duten mozioak udal talde guztiek izenpetzen dituztenean Udalbatzaren erakunde-deklarazio deituko dira.

260. artikulua.- Tramitazioa.

Halakorik jasotzen denean, Lehendakariari eta gainerako taldeei jakinaraziko zaie al bait lasterren, eta erregistratutako testuaren kopia bidaliko, beti ere Eledunen Batzarra bildu aurretik.

261. artikulua.- Zuzenketak

Udal taldeek zuzenketa partzialak nahiz osoarekiko zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte mozio horien inguruan; horretarako, idazki bat aurkeztu beharko dute Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroan, gutxienez ere dena delako bilkura baino lanegun bat lehenago. Halakorik jasotzen denean, Lehendakariari eta gainerako taldeei jakinaraziko zaie berehalakoan, eta erregistratutako testuaren kopia bidaliko.

262. artikulua.- Eztabaidaren antolakuntza

Gai-zerrendan sartutako mozioak eztabaidatu egingo dira. Lehenik proposamena egin duen udal taldea edo herritar ekimena mintzatuko da, gehienez ere 15 minutuz. Gero, zuzenketak aurkeztu dituzten taldeek hartuko dute parte, eta azkenik zuzenketarik aurkeztu ez dutenek, bai eta ekimena aurkeztu duten herritarrek, batzuek eta besteek gehienez ere 10 minutuz. Ondoren erantzun txanda bat zabalduko da, aurreko ordena berean, eta 5 minutu izango ditu talde bakoitzak gehienez.

263. artikulua.- Mozioa erretiratzea.

Debatea amaitutakoan, aurkeztutako mozioa mantendu nahiz erretiratu ahal izango du proposamena egin duen taldeak.

264. artikulua.- Bozketa.

Osoarekiko zuzenketak bozkatuko dira lehenik, eta horietakoren bat onetsiz gero, bertan behera geratuko dira bai zuzenketa partzialak bai mozioa bera. Hala ez bada, zuzenketa partzialak bozkatuko dira, eta, onetsiz gero, aldatu egin beharko da jatorrizko mozioa, dagokionean. Eta, azkenik, mozioa bozkatuko da, onetsitako zuzenketa partzialak jatorrizko testuan txertatzearen ondorio den idazkuntzarekin.

265. artikulua.- Ondorioak.

Kontrol mozioak onesteak ez du ekarriko berekin izaera betearazleko erabakiak hartzea.

Zazpigarren atala. Udal politikaren inguruko debate orokorra.

266. artikulua.- Kontzeptua.

Urtero, ekainean edo Eledunen Batzarrak erabakitzen duen beste dataren batean, udal politikaren gaineko debatea egingo du Udalbatzak, aparteko bilkura monografikoan. Ezingo da beste gairik aztertu bilkura berean, eta ezingo dute denboran bat egin debate horrek eta udal aurrekontuen nahiz ordenantza fiskalen tramitazioak.

267. artikulua.- Gobernu programaren gaineko debatea.

Udal gobernu bakoitzaren agintaldiko lehen urtean, debate horren kariaz, 4 urteetarako gobernu programaren berri emango zaio Udalbatzari.

268. artikulua.- Eztabaidaren antolakuntza.

268.1. Alkatearen mintzaldiarekin hasiko da debatea –ez du denbora-mugarik izango–. Ondoren, eten egingo da bilkura, eta biharamunean ekingo zaio berriro.

268.2. Bilkurari berriro ekiten zaiolarik, oposizioko talde politikoen eledunak mintzatuko dira –talde handienekoa lehenik, txikienekoa azkena–, 20na minutuz, gehienez. Ondoren gobernuaren sostengatzen duten taldeen eledunak mintzatu ahal izango dira. Alkateak guztiei batera nahiz banaka erantzun ahal izango die parte hartu duten taldeei. Banaka egiten badu, gehienez ere 15 minutuz mintzatuko da aldiko. Erantzuteko gutxienez txanda bana –gehienez 10 minutukoa– baliatzeko eskubidea izango dute taldeek.

268.3. Debatea amaiturik eta inolako bozketarik egin gabe, Udalbatzarreko Lehendakariak amaitutzat joko du bilkura.

Zortzigarren atala. Konfiantza-galdea.

269. artikulua.- Arautzea.

Indarrean dagoen legedian xedatutakoak arautuko du.

Bederatzigarren atala. Zentsura-mozioa.

270. artikulua.- Arautzea.

Indarrean dagoen legedian xedatutakoak arautuko du.

XIV. TITULUA. UDALBATZAREN FUNTZIONAMENDURAKO GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

1. KAPITULUA. UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIA

Lehen atala. Udalbatzako idazkari nagusi lanpostuaren titularra.

271. artikulua.- Organoaren beharra

Udalbatzak idazkari bat izango du, zein orobat izango baita batzordeetako idazkari, eta berak egingo ditu, Lehendakariaren zuzendaritzapean, organo horiei laguntza eta aholkularitza juridikoa, teknikoa nahiz administratiboa emateko lanak.

272. artikulua.- Izaera eta izendapena.

Udalbatzaren idazkari nagusi lanpostuaren titularrak zuzendaritza organoen izaera du, eta Udalbatzako Lehendakariari dagokio hori izendatzea, legean aurreikusitako moduan.

273. artikulua.- Ordezkapena.

Lanpostua hutsik badago, idazkaria bertan ez bada edo gaixorik badago, idazkariordeak egingo ditu haren egitekoak –baldin badago–, edo, bestela, hura ordezkatzea dagokion funtzionarioak.

274. artikulua.- Zereginak.

274.1. Legeak 122.5. artikuluan aitortzen dizkion zereginak izango ditu Udalbatzako idazkari nagusi lanpostuaren titularrak:

274.1.1. Aktak idatzi eta gordetzea, baita gainbegiratu eta baimentzea ere; Udalbatzako Lehendakariak ontzat eman beharko ditu.

274.1.2 Ekintza eta erabakiei buruzko ziurtagiriak egitea; Udalbatzako Lehendakariak ontzat eman beharko ditu.

274.1.3 Bilkura deialdiak egiten, eztabaidetan ordenari eusten eta bozketak behar bezala gauzatzen laguntzea Udalbatzako Lehendakariari, eta orobat laguntzea Udalbatzaren eta batzordeen lanak behar bezala bideratzen.

274.1.4. Udalbatzaren erabakiak jakinaraztea, argitaratzea eta gauzatzea.

274.1.5. Udalbatzari eta batzordeei lege aholkularitza ematea. Arauzkoa izango da hori honako hauetan:

a) Dena delako gaia jorratuko den bilkuraren aurretik, garaiz, Lehendakariak agintzen edo kideen heren batek eskatzen duenean.

b) Gehiengo berezia eskatzen duten gaien inguruko kontuak diren guztietan.

c) Lege batek hala eskatzen duenean, Udalbatzaren eskumeneko gaitan.

d) Gobernu organoak kontrolatu eta fiskalizatzeko zereginak direla eta, Lehendakariak edo gutxienez Zinegotzien laurden batek hala eskatzen duenean. Izaera nazionaleko gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuta egongo dira zeregin horiek. Lehendakariari dagokio izendapena egitea, zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako moduan, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130. artikuluan aurreikusitako zuzendaritza organoen pareko izango da, Udalbatza arautzen duten arau organikoek horretaz diotena gorabehera.

274.2. Eta, gainera, Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiko Erregistroaren funtzionamendua zuzentzea. Zeregin horiek behar bezala egin ahal izateko, autonomia izango du, eta beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango die Gasteizko Udaleko organo eta zerbitzuei.

275. artikulua.- Txostenak.

275.1. Udalbatzako idazkari nagusiak arauzko txostenak egiteko eskariak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 122.5 e) artikuluan adierazten den moduan egiten direlarik, horretarako erregistro bereizian jasoko dira, Udalbatzako Lehendakariaren nahiz bertako kideen eskariz bilkuraren batean ahoz egin litezkeen txostenak gorabehera. Indarrean dagoen araudiak horretara behartzen duenean, inork eskatu gabe ere egin beharko du titularrak arauzko txostena.

275.2. TJOALaren 122.5 e) artikuluan adierazitako arauzko txostenez gain, udal eskumeneko gai jakin baten legaltasunari buruzko txosten juridikoa ere eskatu ahal izango diote idazkari nagusiari Udalbatzako kideek, gutxienez horien bosten bat badira, baita bosten hori ordezkatzan duten talde politikoen eledunek ere.

275.3. Txosten horiek idatziz edo "in voce" eskatu ahal izango dira. Azken kasu horretan, gaia dena delako bilkuran eztabaidatzen ari dela bakarrik eskatu ahal izango da.

2. KAPITULUA. UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

276. artikulua.- Egitura eta dotazioak.

276.1. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusia bertako titularrak eta haren menpe dauden atal nahiz zerbitzuetako udal langileek osatzen dute.

276.2. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren egitura eta dotazioak Udalbatzaren erabakiz finkatuko dira, titularrak hala proposaturik.

276.3. Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiari dagokio Udalbatzak bere zereginak bete ditzan beharrezko diren baliabideak administratzea.

277. artikulua.- Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzua.

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak bere zereginak behar bezala egin ahal izan ditzan, plantillako langile hauek izango ditu, gutxienez, zerbitzu horrek:

- 3 teknikari, zuzenbidean lizentziatuak;
- 2 administrari laguntzaile;
- administrari 1.

3. KAPITULUA. UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIKO ERREGISTROA

278. artikulua.- Xedea.

Erregistro propio eta bereizi gisa eratuko da, Udalbatzaren eta horren batzordeen funtzionamenduari zerikusia duten agirien sarrera eta irteera jasotzeko bertan. Halaber, Zinegotziek udal organoei buruz egiten dituzten datu, informazio edo dokumentazio eskabideak jasotzeko udal erregistro gisa ere baliatuko da, haiei gobernu ardurak betetzen eta udal organo kolegiatuetako kide gisa dituzten eskubide eta betebeharrak edo kontrol eta fiskalizazio zereginak bideratzen laguntzeko, araudi honen 73 bis artikuluan ezarritakoari jarraituz.

279. artikulua.- Arautzea.

Araudi honetan berariaz aurreikusi gabekoei dagozkienetan, administrazio prozedura komunaren araudian finkatutakoa izango da agiriak aurkezteko erregimena.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalbatzako kide izanik erabateko dedikazioz lan egiten duten Zinegotziek kobratuko dituzte araudi honetan zehaztutako ordainsariak. Horiek jasotzen dituztenek ezin izango dute administrazio publikoen eta horien menpeko erakunde, organismo eta enpresen aurrekontuetatik aldi berean beste ordainsaririk jaso; orobat izango da bateraezin bestelako jarduerekin, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen ildotik.

Udalbatzak erabaki beharko du zein karguk izango duten dedikazio partziala, Lehendakari edo Lehendakariorde zereginak egitearen edo eskuordetzeak izatearen ondorioz nahiz hala eskatzen duten ardurak izatearen ondorioz, baita ordainsari horiek jasotzeko beharrezko den gutxieneko dedikazioa ere. Administrazio publikoetako edo horien menpeko erakunde, organismo edo enpresetako langile diren Udalbatzako kideek lantokiko lanorduez kanpo beren zereginei eskaintzen dieten dedikazio partzialari dagozkion ordainsariak bakarrik jaso ahalko dituzte, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 5. artikuluan adierazitako moduan, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Dekretu bidez zehaztuko du Alkateak Udalbatzako zein kidek egingo dituzten beren zereginak erabateko dedikazioz eta zeinek dedikazio partzialez. Dekretu horiek indarrean jartzen diren unetik bertatik jaso ahalko dituzte ordainsariak Udalbatzako kideek.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi organiko honen baitako arauak lehenetsuna izango dute maila bereko nahiz behegarrikoen aldean, elkarren kontrako edo bateraezin suertatzen direlarik.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Gasteizko jaietako protokolo ekintzetan talde politikoen aniztasuna babeste aldera, txandak egingo dira urtero abuztuaren 4an egiten den suziri jaurtiketarako. Gasteizko udalerrian azken udal hauteskundeetan izandako emaitzen arabera zehaztuko dira txanda horiek, boto gehien lortu zituenetik gutxien lortu zituenera.

Edonola ere, txanda horiek aldatzerik izango du Udalbatzak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honen haritik aldatu nahiz sortzen diren lanpostuak bete ahal izateko plantillan egin beharreko aldakuntzak berorren eranskin gisa jasoko dira.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Udal organoen agiri publikoen idazkuntzan sexismorik gabeko hizkeraren erabilera bermatu beharko da, Udalaren Ekintza Positiborako Planaren 1. ataleko 1.5.1. jardueran jasotakoaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honek indargabetu egingo ditu bai Gasteizko Udaleko Antolakuntza eta Jardunerako aurreko Udal Araudia, bai Udalbatzak berak emandako gainerako xedapenak ere, artikulua hauetan jasotakoaren kontrakoak badira.

